

# Euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak<sup>1</sup>

**Xabier Erize**

*Soziolinguista*

xabier.erize@yahoo.es

Sarrera-data: 2016-06-13 | Onartze-data: 2016-07-26

**Laburpena.** Lan honen helburuak bi dira: (1) euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2016) aztertzea eta aurrera begirako bideak identifikatzea, bai hizkuntza-plangintzan bai ikerketan; eta (2) herritarren motibo subjektiboak euskal ikerketa eta praktika soziolinguistikoan finantzatzeko justifikazioan aurreratzea. Kontzeptu nagusiak *Ekintza soziala* (Max Weber), *Motiboa* (Max Weber), *Hautu linguistikoa* eta *Erresonantzia* izan dira. Ondorio nagusia da herritarrek euren motibo subjektiboak dituztela euskararekin eta erdararekin egiten dutena egiteko. Honek ondorioak ditu bi arlotan: hizkuntza-politika publikoetan eta gizarte mugimenduetan. Hizkuntzaren sustatzaileek ez dituzte herritarren motiboak auresuposatu behar. Galdetu behar dizkiete herritarrei, modu sistematikoan, eta kontuan hartu plangintzan zein ikerkuntzan. Sustatzaileen esku dago euskararen aldeko giro positiboa elikatzea eta aukera linguistikoaren berdintasuna sustengatzea, herritarrekiko erresonantzia positiboak lortze aldera.

- **Hitz gakoak:** *Ekintza sozial linguistikoa; Motibo subjektiboak; Hautu linguistikoa; Erresonantzia; Hitzunen agentzia; Proiekzio soziolinguistikoak.*

**Abstract.** This paper has two aims: (1) to analyse the development (1991-2016) of the subjective motives of the Basque population for their linguistic behaviours, and identify possible future lines of research; and (2) to contribute to positioning motives for linguistic behaviours as a subject for study within Basque sociolinguistics, on both a research and an applied level. The main concepts are *Social action* (Max Weber), *Motive* (Max Weber), *Language Choice* and *Resonance*. The main conclusion is that citizens have their own subjective motives to behave in the specific ways that they do in Basque or in Spanish/French. This has consequences in two areas: in public language policy and in social movements. The promoters of the language should not take the motives of citizens for granted. They should ask citizens systematically and take their answers into consideration in planning as well as in research. It is up to the promoters to encourage a positive atmosphere in favour of Basque and to support equality in language choices, in order to achieve positive resonance among the community.

- **Key words:** *Linguistic social action; Subjective motives; Resonance; Speakers' agency; Sociolinguistic projections.*

## 1. SARRERA

### I

#### 1.1 Helburuak, metodologia eta epea

Lan honen *helburuak* bi dira: (1) euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2016) aztertzea eta aurrera begirako bideak identifikatzea, bai hizkuntza-plangintzan bai ikerketan; eta (2) herritarren motibo subjektiboak euskal ikerketa eta praktika soziolinguistikokoan finkatzeko justifikazioan aurreratzea.

Garbi utzi nahi dut hasieratik “herritarrei buruz”, hiztunei buruz, arituko dela lan hau, ez “euskarari” edo “hizkuntzari” buruz abstraktuan. Herritarrak dira subjektua.

Lana lau galderaren inguruan antolatu da: (1) Zer gertatu da euskal herritarren motibo subjektiboari dagokienez?, (2) Zergatik gertatu da?, (3) Zer gerta liteke, oro har, datozen hogeitun urtean?, eta (4) Zer komeni da egitea motibo subjektiboaren esparruan?

Euskal Herritarren %55ek euskara sustatzearen aldeko jarrera badute eta herritarren %45ek ez badute sustatzearen aldeko jarrerarik, V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2013)<sup>2</sup>; edo EAEko 13-14 urteko ikasleek (DBH2) gustukoago badute gaztelania (%71) euskara (%55) baino, Arrue ikerketaren arabera<sup>3</sup> (Eusko Jaurlaritza, ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra, 2012, 11. or.), nabarmena da euskararen sustatzaileek (publikoak, ekimen sozialekoak zein ekimen pribatukoak, bakoitza bere lan arloan) erronka handia dutela oraindik populazioaren borondatea irabazte aldera; eta hori motibazioen, jarreraren eta alde subjektiboaren esparrua da.

Nola justifikatu euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen defentsa barruko nahiz kanpoko iritzi publikoaren aurrean? Galdera hau betidanik dator eta irekita segitzen du gaur egun ere. Hor datza euskara sustatzeko plangintzaren gako nagusietako bat.

Horretarako ezinbestekoa da herritarren motibo linguistikoak sistematikoki ezagutzea eta kontuan hartzea, herritar batek euskararen munduko erakunde eta kideei eska liezaiekeen bezala: “Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko; galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?” (Erize, 2014). Honek guztiak, bistan denez, inplikazio handiko ondorio praktikoak zein kontzeptualak ditu bai euskararen egoera sozialaren azterketan bai euskara sustatzeko ahaleginetan.

---

**Nola justifikatu euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen defentsa barruko nahiz kanpoko iritzi publikoaren aurrean? Galdera hau betidanik dator eta irekita segitzen du gaur egun ere. Hor datza euskara sustatzeko plangintzaren gako nagusietako bat.**

Gizarte erakundeek eta kausa sozialen sustapenez ari zirela, ideia bera esan zuten Philip Kotler-ek eta Peter Drucker-ek (Kotler, 1990) ere: aurrena da jakitea zein diren jendearen balioak; kontua ez da erakunde sustatzaileak jendearentzat garrantzitsua izan beharko litzatekeela uste duena esatea jendeari, baizik eta benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat, eta horretaz jardutea: “[In the non-profit organizations] you have to start out with knowing what the customers really consider value, what is important, before you communicate, rather than telling the things you believe should be important to the customer” (Kotler, 1990, 63. or.).

Maila praktikoan, adibidez, Estatu Batuetako Barak Obamaren Osasun Sistemaren erreforma bultzatzeko, gako herritarren balioekin eta bizitzekin modu esanguratsuan lotuko zen argudiorik sendoena bilatzea zen, Joel Benenson ikertzaileak zioenez: “Cuando estaba el tema de la sanidad, una reforma muy discutida, él [Obama] sabía que era algo que había que hacer y nosotros como analistas teníamos que saber cuáles eran los argumentos más sólidos para defender su posición. ... El objetivo es consolidar tu mensaje para saber que siempre llega a las personas de una manera que sea relevante para sus valores y sus vidas. No solo a nivel intelectual” (Ortuzar, 2014).

Hau da, euskararen eta hizkuntzen kasura etorrira, herritarren motibo, arrazoi, nahi, interes, behar edo balio linguistikoak ikertu beharko lirateke, herritarren beraien zergatiak edo motibazioak, azken finean, eta horien arabera jokatu etorkizunean arrakasta lortu nahi izanez gero. Intuizioan edo jendeari buruzko usteetan oinarritzea ez da bide ona euskararen sustapenerako, are gutxiago motibazioen alorrean. Kontua, beraz, ez da euskararen munduak jendearentzat garrantzitsua izan beharko litzatekeela uste duena esatea jendeari, baizik eta benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat.

Lanak *metodologia* mistoa izan du. Alde batetik, orain arteko literaturaren hustuketa eta ebaluazio kritikoa (*Literature review*<sup>4</sup> motakoa [American Psychological Association, 2011]) egin dut: euskal soziolinguistikan motibazioen inguruan argitaratu diren ikerketak, inkesta edo lan soziolinguistikoak, gehi soziolinguistika orokorreko edo gizarte zientzietako literaturako hainbat lan. Informazioak, kuantitatiboak zein kualitatiboak, aipatutako inkesta edo ikerketetatik hartu ditut. Bestetik, etorkizunari begirako eztabaida (“Zer gerta liteke 2016-2036 epean?”) proiektio<sup>5</sup> demolingüistikoetan oinarritu dut, 1991-2011 bitarteko bilakaeraren da-

tuetatik abiatzen den erreferentziako eszenario bat estimatuta<sup>6</sup>. Ni ez naiz demografian aditua, baina ausartu naiz ariketa hori egitera tratamendu formal zailtan sartu gabe, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako aurrera begira bilakaeraren zenbaki objektiboetan oinarrituta eztabaiatzea, eta nahiak eta errealtate posiblea bateratzen saiatzea.

Lanaren epea 1991-2016 da. Arrazoia erraza da: iturrien eskuragarritasuna eta konparagarritasuna. Hasierako data 1991 da, I. Inkesta Soziolinguistikokoaren urtea<sup>7</sup>. Hortik aurrera, 1991-1996-2001-2006-2011 urteetako inkesta soziolinguistikoei oso serie sendoak eta konparagarriak egiteko aukera ematen dute. Eta amaierako data 2016 da, 2015-2016 urteetan herritarren motibo subjektiboak euskal soziolinguistikaren erdigunean jartzeko oso garrantzitsuak izan daitezkeen lanak agertu zirelako: *Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoen lanketa (EGOD)* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta b), *Euskararen Aholku Batzordeak egin zuen euskararen egoera sozialaren AMIA (Euskararen Aholku Batzordea, 2015)*, *Euskararen Aholku Batzordeak onartutako Eta hemendik aurrera zer?* dokumentua (Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) eta *Eurkararen Aholku Batzordeak onartutako "Gu Gazteok". 12-14 urte gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea* (Euskararen Aholku Batzordea, 2016).

Azkenik, gogoan izan behar da motiboan eta alde subjektiboan azterketak gaintitu beharreko *zailtasun* berezi bat duela: modu egokian erabiltzea soziolinguistikian motiboan eta alde subjektiboan gaiak eta kontzeptuak, gehienak ez baitira berez soziolinguistikian sortuak, baizik eta gizarte zientzietako beste diziplina batzuetan. Soziolinguistikian, Allan Bell-ek (2014) ohartarazi zuenez, etxean erabiltzeko moduko erantzunak asmatzen ibiltzeko joera izaten da, beste diziplinetan aspaldian landuta dauden gaietarako; edo kontzeptuak akritikoki kopiatzeko beren inplikazioen kontzientzia handirik gabe. Antzeko zerbait esan zion Joshua Fishmanek lan honen autoreari 1999ko elkarrizketa batean: "Gizarte zientzietako inolako oinaririk gabe egiten dute Soziolinguistika. ... Horrek esan nahi du gizarte zientziekin harreman sakonik ez dutela izan eta, ondorioz, gurpila berrasmatu behar izan zutela ikerketa bat egin zuten bakoitzean" (Erize, 1999a, 117. or.).

## 1.2 Kontzeptu nagusiak

*Lau kontzeptu nagusi erabiliko ditut lan honetan: Ekintza soziala, Motibo subjektiboa, Hautu linguistikoa, eta Erresonantzia.* Oso argigarriak gertatzen zaizkit euskal herritarren motibo linguistikoen bilakaera aztertzeko,

eta lauk elkarrekin lotuta ikusten ditut, eta lauek herritarren motiboak jartzen dituzte erdigunean. Asmoa ez da, beraz, kontzeptuen inguruko eztabaida teoriko bat egitea, baizik eta lan honetarako baliagarriak zaizkidan kontzeptuak identifikatzea.

*Ekintza soziala* Max Weber klasikoaren ildotik ulertzen dut: subjektua-erantzat, edo subjektuentzat, esanahi subjektiboa duen eta besteen portaerarekiko erreferentzian egiten den giza portaera bat:

Por 'acción [social]' debe entenderse una conducta humana (bien consista en un hacer externo o interno, ya en un omitir o permitir) siempre que el sujeto o los sujetos de la acción *enlacen* a ella un *sentido* subjetivo. La "acción social", por tanto, es una acción en donde el sentido mentado por su sujeto o sujetos está referido a la conducta de *otros*, orientándose por ésta en su desarrollo. (Weber, 1922/1993, 5. or.)

Beraz, ekintza sozialetan (eta ekintza linguistikoetan) bi aldeak ditugu batera: giza portaerak + subjektuek ematen dieten esanahia. Batzuetan ekintzak eta alde subjektiboak kontrajartzeko tentaldia izaten da ("Niri, euskarari buruz, ekintzak interesatzen zaizkit, ez hitzak edo jarrerak!", norbaitek esan lezakeen bezala), baina lan honetan biak lotuta doazela ulertuko dut (ikus, halaber, 1.3. atala).

*Motiboa* zentzu zabalean erabiliko dut: portaera edo ekintza sozialen esanahi edo zentzu subjektiboa. Hau ere Max Weber-en "motibo"-aren definiziotik abiatzen dut: "Llamamos 'motivo' a la conexión de sentido que para el actor o el observador aparece como el 'fundamento' con sentido de una conducta" (Weber, 1922/1993, 10. or.).

Hedaduraz, "motibo" terminoarekin batera portaera linguistikoaren alde subjektiboak ditugu oro har, hala nola iritziak, jarrerak, esanahi subjektiboa, diskurtsoak, motibazioak, arrazoiak, balioak, ideologiak, mentalitateak, sinesmenak, irudikapenak, nahiak, interesak, sinpatiak, emozioak, sentimenduak, leialtasuna, pizgarriak, edo aurreiritziak: "The vocabulary associated with motivation is large; such terms as purpose, desire, need, goal, preference, perception, attitude, recognition, achievement, and incentive are commonly used" (Motivation, 2016a). Termino horiek gehienek ideia bat partekatzen dute: motibo subjektiboak portaeren inspiratzaile bezala ikustea.

"Motiboa" kontzeptuak bi abantaila bat ditu nire ustez aipatutako gainerako termino horien aldean: (i) argi erakusten du pertsonen, herritarren

ezaugarri bat dela, ez dela kontzeptu abstraktu bat, baizik eta pertsonen motiboei buruz ari garela; eta (ii) termino haien definizioen arteko eztabaida nahasi eta maiz antzutik ateratzea ahalbidetzen digu.

Hainbat diziplinan —soziologia, gizarte psikologia, enpresa zientziak, pedagogia, osasuna...— lantzen dira giza portaeraren alde subjektiboak, eta diziplina bakoitzak bere terminologia eta ñabardura bereziak ditu kontzeptuak definitzerakoan eta erabiltzerakoan. Gizarte zientzietan ez dago definizio bat bakarra eta berdina esandako kontzeptuak zehazteko. Eta, gainera, batzuetan, 1.3. atalean ikusiko denez, termino baten eta beste baten definizioak oso antzekoak eta ia elkar trukagarriak izaten dira. Horregatik, normalean, kontzeptuen xehetasunetara jaitsi ordez haien ikuspegi orokorra bilatuko dut.

*Hautu linguistikoa* (edo hizkuntza-hautaketa, *language choice*) kontzeptuak, euskal soziolinguistikan gutxi landu bada ere, inplikazio sakonak ditu nazioarteko linteratura soziolinguistikoaren arabera: hiztunek (bakarka zein taldeka) hautuak egiten dituzte hizkuntzen edo barietateen artean, eta hautu horien bidez hiztun komunitate baten edo bestearen balioekin lotuak izateko nahia adierazten dute, besteak beste (Fasold, 1984/1992, 208. or.). Gogoan izan behar da hiztunen hautu linguistikoak soziolinguistikaren muinean daudela, soziolinguistika existitzen dela hiztunek hautaketak egiten dituztelako hizkuntzaren erabileran: “sociolinguistics only exists as a field of study because there are choices in using language” (Fasold, 1984/1992, 181. or.). Praktikan, hautuak mota askotakoak izan daitezke: euskara erabiltzea edo ez erabiltzea, euskara transmititzea edo ez transmititzea, seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzea edo ez, euskara ikastea/sakontzea edo ez, euskarazko kultura kontsumitzea edo ez, erregistro hau erabiltzea edo beste hau. Garbi dago, bereizketa horiek ez direla dikotomikoak, eta tarteko ñabardura guztiak kabitzen direla. Hautuak, halaber, indibidualak zein kolektiboak izan daitezke, unean unekoak zein iraunkorrak. Horiek guztiak subjektuek, hiztunek egiten dituzten hautu eta portaera linguistikoak dira, berezkoak edo naturalak batzuk eta kontzienteak edo kulturalak beste batzuk.

François Grin-en (2003, 7-8. or.) arabera, hautuak pertsonalki libreagoak dira batzuetan, “in which actors have a not insignificant degree of personal freedom”, eta sozialki baldintzatuagoak beste batzuetan, “constrained by social norms”. Zergatik, jendeak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko aukera duenean, nahiago du bata ala bestea

**Soziolinguistikan,  
klasikoa da  
Joshua Fishman-  
en (1988)  
planteamendua:  
hizkuntzen  
egoera sozialaren  
azterketan,  
erabilera  
hutsarekin  
batera jarrerak  
eta prozesu  
psikologiko,  
sozial eta  
kulturalak  
aztertu behar  
dira.**

erabili?, galdetu zuen François Grinek (1999, 16. or.), jakinik hautaketa horrek, ziur asko, ondorioak izango dituela hizkuntzen iraupen edo ordezkapen prozesuetan. Ba, erantzun zuen François Grinek (1999, 16. or.), bata zein bestea erabiliko dute, alde batetik, haien lehentasun, nahi, balio eta beharren arabera, eta, bestetik, kontuan hartuta aukera bakoitzaren kostu materialak eta ez-materialak, hautaketen baldintzak direnak, azken batean. Hala ere, esan bezala, hain garrantzitsua izan arren, hizkuntza-hautaketa ez da asko aztertu euskal soziolinguistikan. François Grinek (1990, 155. or.) “a constrained choice” aipatu zuen bi-kotik, normalean “constrained” aldea nabarmendu da euskal soziolinguistikan, “choice” aldea ahaztuta gelditu ohi den bitartean. Ikus, halaber, 1.3.2. atala.

Laugarren kontzeptua *Erresonantzia* dugu. Kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrotzen denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean, halako sintonia bat sortzen denean (Snow eta Benford, 1988, 198-199. or.). Diskurtso edo markoek arrakasta izan eta erresonantzia positiboak lortzen badituzte, adostasun berri bat zabaltzen dute gizartean eta, horrela, mugimenduak aldeko pertsonak mobilizatzea, neutroak irabaztea eta aurkariak desmobilizatzea lortzen du. Erresonantzia positiborik edo sintoniarik ez bada sortzen, berriz, kausa sozial horrek ez du arrakasta handirik lortzen.

Beraz, laburbilduz, herritarren ekintza eta hautu linguistikoak ditugu eta, horiekin batera, horrela jokatzeko dituzten motibo subjektiboak. *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentuak dioenez, “faktore objektiboek ez ezik, subjektiboek ere erabilera modu erabakigarrian eragiten dute. Faktore subjektiboek buruz, ordea, gutxiago dakigu faktore objektiboek buruz baino, eta uste dugu ematen zaien baino garrantzi handiagoa eman beharko zaiela datozen urteotan” (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016, 24. or.). Horretaz arituko da lan hau, egilearen gaitasunaren neurrian, noski. Soziolinguistikan, klasikoa da Joshua Fishman-en (1988) planteamendua: hizkuntzen egoera sozialaren azterketan, erabilera hutsarekin batera jarrerak eta prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak aztertu behar dira. Sánchez Carrión “Txepetx”ek ere (1999, 306. or.) *izateko nahia* (edo “Voluntad de ser”) jarri zuen euskal hiztun komunitatearen trinkotzearen erdigunean.

### 1.3 Kontzeptu batzuen eztabaida

#### 1.3.1 Motiboak, motibazioak, jarrerak, balioak... denak lotuta daude portaerekin

Literatura teknikoan, ehunka definizio daude motibazioei edo jarreiei buruz, eta, gainera, arlo batetik bestera (gizarte psikologia, soziologia, soziolinguistika, *management*, pedagogia...) kontzeptuen adiera edota izen desberdinak erabiltzen dira. Horietatik, oinarrizko ideia batzuk nabarmendu daitezke.

Lehenago esan bezala, *motibo* kontzeptua iruditzen zait egokiena alde subjektiboan termino horiek guztiak modu orokorrean biltzeko (ikus 1.2. atala).

Piska bat aurrerago segituz, *Motibazioaren* definizio bat hau da: “Motibazioa portaera azaltzeko konstrukto teoriko bat da. Jendearen ekintzen, nahien eta beharren arrazoiak adierazten ditu” [“Motivation is a theoretical construct used to explain behavior. It represents the reasons for people’s actions, desires, and needs”] (Motivation, 2016b). Beraz, herritarren motibazioak, ekintzak, nahiak eta beharrak estuki lotuta daude motibazioen definizio honetan.

Antzeko moduan, motibazioak, beste definizio baten arabera, hau dira: giza portaerak eragiten eta zuzentzen dituzten prozesu mentalak: “The mental processes that arouse, sustain, and direct human behaviour” (Motivation, 2016a). Sánchez Carrión “Txepetx”en (1987, 35. or.) definizioa, aurrekoekin guztiz bateragarria dena, hau da: “Entendemos por motivación las razones, deseos o intereses que mueven a aprender una lengua o a permanecer en ella”.

Motiboa, motibazioa eta ekintza, beraz, guztiz lotuta daude. Motibazioak, noski, kontzienteak edo inkontzienteak izan daitezke (Forgas, Williams eta Laham, 2005). Gizarte zientzietan badago “motibo” hitzaren beste adiera bat, Max Weberren tradiziotik aldentzen dena: aktoreek euren ekintzak justifikatzeko erabiltzen dituzten aitzakiak edo azalpenak (ikus Campbell, 1996), baina, hori jakinda ere, lan honetan goian aipatutako adieran erabiliko dira motibazio edo motibo kontzeptuak.

Gauzak sinplifikatuz, motibazio hitzak adiera desberdinak ditu:

1. Motiboak, herritarren arrazoiak modu jakin batean jokatzeko: “Nik nire motibazioak (nire motiboak, nire arrazoiak, nire zergatiak)



ditu hau egiteko (edo esateko)”. Edo, Kike Amonarrizek (2013d) estilo kolokialean zioenez, “Esango zenidake zeintzuk diren irakasle izatera bultzatu zaituzten hiru arrazoi nagusiak?”.

## 2. Motibatzea.

2.1 Norbera motibatzea (motibazio intrintsekoa, barnekoa, *intrinsic motivation*): “Motibatu naiz hau egiteko (edo esateko)”.

2.2 Kanpoko batek norbait motibatzea (motibazio estrintsekoa, kanpoko, *extrinsic motivation*): “Motibatu nauzu hau egiteko (edo esateko)”.

Maiz, “motibazioa” bakarrik (2.2) adierarekin lotu ohi da: “motibazio kanpainak”, “motibazio taldeak”, etab., baina hori murriztaile samarra gertatzen da, subjektua (pertsona, taldea...) alboratu uzten delako.

Edozein kasutan, motibazioa barneko zerbait dela kontuan hartuta, (2.2) motako motibazioa (kanpotik motibatzea) zaila gertatzen da eta, arrakasta izateko, kanpotik motibatze horrek izakiaren barruko zerbaitekin konektatu behar du, bestela nekez lortuko du ezer.

Populazioarekin lan egiten duten beste alor batzuetan garbi dute hori. Adibidez, Osasun Publikoaren Sustapenaren alorrean, bizi-estilo osasungarriak sustatzerakoan:

La finalidad de la información y la educación [para la salud] no es tanto que se lleven a cabo comportamientos definidos y prescritos por la o el “experto”, sino facilitar que las personas movilicen sus propios recursos y desarrollen capacidades que les permitan tomar decisiones conscientes y autónomas sobre su propia salud. Para aprender se considera esencial un aprendizaje significativo: **la persona aprende desde sus experiencias, vivencias y conocimientos.** (Beltza nirea da) (Echauri, Pérez eta Salcedo, 2001)

Enpresen eta erakundeen munduan ere oso garbi dute hori: “La motivación hacia el trabajo viene del interior del individuo y no de los estímulos que la empresa pueda utilizar para despertarla” (Durán-Pich, 2010, 122. or.) (halaber: UNED, Módulo II, Tema 13, 8. or.: “Las personas no pueden ser motivadas; esa puerta está cerrada desde dentro. Deben trabajar en una atmósfera que favorezca su propia motivación”), nahiz eta, noski, motibatzekeko pizgarriak erabiltzen diren: “actuar sobre la motivación de sus empleados” (Iborra et al., 2011, 411. or.). Lan honetan, argigarrienak (1) eta (2.1) motako adierak gertatzen dira: “motiboak” eta “motibazio intrintsekoa”.

Motibazioa, halaber, oso lotuta dago beharrak asetzearekin (Abraham Maslow).

Hala ere, garbi eduki behar da portaeren kausak ez direla motibazioak bakarrik: portaera guztiak ez daude motibazioekin lotuta, badaude determinatzaile objektiboak ere (Green, 2000).

Jarrera-ren definizio klasiko bat Gordon W. Allport-ek 1954.ean eman zuena da: “Ikasitako predisposizio bat, modu jakin batean pentsatzeko, sentitzeko edo jokatzeko pertsona (edo objektu) bati buruz” [“A learned predisposition to think, feel and behave towards a person (or object) in a particular way”] (Allport, 1954, aipatua in Chu, 2008, 15. or.). Zentzu berean, “jarrerak baldintzatuko dute pertsona batek ikusiko eta adituko duena, pentsatuko duena eta egingo duena” [“attitudes determine for each individual what he (or she) will see and hear, what he (or she) will think and what he (or she) will do”] (Allport, 1935, 806. or., aipatua in Visser, Bizer eta Krosnick, 2004, 1. or.). Jarreraren definizioetan hainbat ezaugarri agertu ohi dira: predisposizioak dira, ikasitakoak, zerbait egiteko prest egotea suposatzen dute, iraunkorrak dira, ebaluatiboak dira (Chu, 2008, 15. or.).

Jarrerak hiru osagai nagusi dituzte (Rafter, 2013): kognitiboa (pentsamenduak eta usteak), emozionala (sentimenduak) eta portaerazkoa (ekintzak egiteko predisposizioak). Jarrerak, halaber, kontzientek edo inkontzientekoak izan daitezke.

Jarrerak, beraz, motibazioen antzera, eragina dute pentsamenduetan eta ekintzetan: “In social psychology, attitudes are defined as learned, global evaluations of a person, object, place, or issue that influence thought and action” (Social Psychology, 2016). Eta, noski, jarrerak alda daitezke; izan ere, jarreraren aldaketa (*attitude change*) gizarte psikologian propio aztertzen den arlo bat da.

Bestalde, nabarmentzekoa da Carl Jung-en jarreraren definizioa eta goian aipatu dugun motibazioaren azalpena ia-ia berdinak direla, eta guztiz lotuta dagoela ekintzekin. Hona hemen Jung-en definizioa: “[attitude is a] readiness of the psyche to act or react in a certain way” (Jung, 1921, aipatua in Attitude, 2016).

Beraz, motibazioak eta jarrerak elkarren gertu dauden kontzeptuak li-rateke, eta bietan kontuan hartu behar da eragin praktikoa dutela pertsonen ekintzetan edo pentsamenduetan.

**Ondorioz, askotan agertzen den dikotomia bat saihestu behar da: jarrerak (edo motibazioak) eta ekintzak kontrajartzen dituen (= “jarrerak ez dira aski, aldeko jarrera eduki daiteke, baina gero ez bada praktikan gauzatzen ez du balio...”), ez da dikotomia horretan erori behar.**

Maiz, joera bat izaten da jarrerak (edota motibazioak) eta ekintzak kontrajartzeko, loturarik ez balute bezala elkarren artean, baina goiko definizio horiek guztiak ikusita, kontrajartze horrek ez duela oinarri kontzeptual handirik esango nuke nik.

*Balioak* ere oso lotuta daude motibazioekin edo jarrerekin, gauzen balorazioan, aldekoa zein kontrakoa, oinarritzen dira-eta: “Valores. Ideas que los individuos o grupos humanos mantienen sobre lo que es deseable, apropiado, bueno o malo” (Giddens, 1989/1993, 770. or.). Berdintsu esan zuen Guy Rocher-ek ere (1969/1990, 70. or.): “valor es una manera de ser o de obrar que una persona o colectividad juzgan ideal y que hace deseables o estimables a los seres o a las conductas a los que se atribuye dicho valor. ... el valor no es menos real que las conductas o los objetos a los que se concreta o por los que se expresa”.

Oro har, motibazioei buruz aritzerakoan bi norabide har daitezke:

- Orokortasunera jotzea: esanahia (motiboa, zentzua, *sentido*, *meaning*...) biltzen duten faktore psikosozial guztiak batera hartzea. Maiz norabide hau gertatzen da lagungarriena, lan honen kasuan bezala.
- Kontzeptuz kontzeptuko bereizketa eta zehaztasunetara jotzea: beste batzuetan bide hau izan daiteke komenigarria.

Ondorioz, askotan agertzen den dikotomia bat saihestu behar da: jarrerak (edo motibazioak) eta ekintzak kontrajartzen dituen (= “jarrerak ez dira aski, aldeko jarrera eduki daiteke, baina gero ez bada praktikan gauzatzen ez du balio...”), ez da dikotomia horretan erori behar. Lehenagoko definizio horiek guztiak ikusita, kontrajartze horrek ez duela oinarri kontzeptual handirik esango nuke nik. Egia da, bai, hitzen eta ekintzen arteko aldearen gaia oso garrantzitsua dela eguneroko bizitzan, noski, baina *Biblia* bezain zaharra da gutxienez: “Hilobi zurituak ... Beren egintzetatik antzemango diezue” (*Elizen arteko Biblia*, 1994: Mt 23,27 eta 7,16); ez da azken momentuko aurkikuntza berri bat. Jarreraren eta motibazioen goiko definizioek bi aldeak lotzen dituzte: ideiak, edo esanak, eta ekintzak. Eta, gainera, aspalditik jakina da gizarte zientzietan hitzak ere ekintzak direla: “decir algo es hacer algo” (Austin, 1962/1990, 53. or.), diskurtsoaren eragin performatiboa (Bourdieu, 1982/1985, 66. or.).

### 1.3.2 Agentzia / gizarte egituren baldintzak; ikuspegi interpretatzailea / ikuspegi positibista

Eztabaida zaharra da. Aintzinako teologoek “libre albedrio” *versus* “predestinazioa” eztabaida egiten zuten. Geroago, eztabaida haren bertsio laikoagoak egon dira nonbait, eta libre albedrio eta predestinazio kontzeptuen ordez pertsonen askatasunaz, pertsonen agentziaz *versus* gizarte egituren determinismoaz edo baldintzez hitz egitera pasatu bide da, baina, ausartuko nintzateke esatera eztabaida berdintsua dela funtsean.

Subjektuen agentzia (ekintzak bere kabuz egiteko ahalmena) *versus* gizarte egituren baldintzak edo determinismoa; norbanakoa *versus* gizarte egiturak; giza ekintzen izaera motibatua *versus* izaera motibogabea; gizarte zientzien ikuspegi interpretatzailea *versus* ikuspegi positibista *versus* ikuspegi kritikoa... Giza ekintzen eta, beraz, portaera linguistikoaren motibo eta alde subjektiboaren gaiak lantzerakoan, komeni da kontuan hartzea ikuspegi desberdinak daudela gizarte zientzietan eta denak zilegiak direla, nahiz eta soziolinguistikaren beste diziplinetako ikuspegi horiek askotan oharkabean erabiltzen diren (ikus, adibidez, Abercrombie, Hill eta Turner, 1994; Bell, 2014; Campbell, 1996 eta 1998; Erize, 1999a; Johnson eta Ricento, 2013; edo Neuman, 1997). Maiz, *continuum* baten aldeak bezala irudika daitezke bereizketa horiek, eta kontua zehaztasunetan ongi asmatzea izaten da, alegia, kurtsorea ongi kokatzea *continuum* horretan.

Ni neu, lan honetan, giza ekintzak motibatua bezala ikusten dituen eta alde subjektiboak aintzat hartzen dituen ikuspegi interpretatzailean kokatuko naiz batez ere, hori gertatzen zait argigarriena eta, gainera, berriena euskal soziolinguistikarako. Halaber, subjektuen agentzia eta gizarte egiturak batera aztertzen dituen ikuspegiaren kokatuko naiz, ez baldintza sozialen determinismoan (ikus Erize, 1997, 105. or.). Ez da komeni “norbanakoa” *versus* “kolektiboa” bereizketa muturreraino kontrajartzea. Normalean, “ni”, “gu” eta “gizartea” harremanetan egoten dira, ez daude erabat bereizita, Friedrich Engels-ek nabarmendu zuenez: “Nosotros hacemos nuestra historia, pero en primer lugar con premisas y condiciones muy determinadas” (Marx eta Engels, 1977, 592-593. or.)<sup>8</sup>. Edo “ni”, “hizkuntza” eta “gizartea”, Sánchez Carrión “Txepetx”ek (1999, 339. or.) esan zuenez: “en mi Teoría la persona es una dimensión de la lengua, y el idioma es otra, conectadas ambas a través de los grupos sociolingüísticos”.

Ikuspegi interpretatzailearen arabera, errealitate sozialean, gertakarien alde objektiboak eta alde subjektiboak gertatzen dira aldi berean, hau da, portaerak gehi subjektuek portaerei ematen dieten esanahia: esanahia

duen ekintza sozialak (*meaningful social action* [Neuman, 1997, 69. or.]), lehenago ikusi denez. Errealitate soziala ulertzeko eta bertan aldaketa eraginkorrek sustatzeko, beharrezkoa da bi aldeak kontuan hartzea, ez bakarrik portaerak eta ez bakarrik alde subjektiboak.

Ikuspegi positibistaren arabera, berriz, giza ekintzen barne motibazioak ez dira garrantzitsuak eta ez lirateke aztertu behar, bakarrik kanpotik ikus daitezkeen portaerak aztertu beharko lirateke: “We can learn about people by observing their behavior, what we can see in external reality. This is more important than what happens in internal, subjective reality. ...External reality suggests that researchers do not have to examine unseen, internal motivations of an individual’s behavior” (Neuman, 1997, 64. or.). Ikuspegi positibista hedatuena da (Neuman, 1997, 62. or.).

### *1.3.3 Hizkuntzen alorrean: portaerak + hiztunek ematen dieten esanahia: motibo subjektiboak*

Hizkuntzaren alorrean ere, portaerak eta haien esanahia egoten dira. Euskara erabiltzea edo ez erabiltzea, euskara transmititzea edo ez transmititzea, seme-alabak D, B, A edo G ereduetan matrikulatzea, euskara ikastea/sakontzea edo ez, euskarazko kultura kontsumitzea edo ez, etab., gehi tarteko ñabardura guztiak, horiek guztiak subjektuek, hiztunek, egiten dituzten hautu eta portaera linguistikoak dira, berezkoak edo naturalak batzuk eta kontzienteak edo kulturalak beste batzuk (A zein B ibilbidekoak, Sanchez Carrión “Txepetx” en [1987] terminoetan). Ikerketa batek, gauzak sakon ulertuko baditu, hiztunek ekintza horiei ematen dieten esanahi edo zentzua aurkitu eta interpretatu beharko luke: zein da hautu edo portaera horien esanahia hiztunentzat? Alegia, zergatik jokatzen dute jokatzen duten bezala?

Motiboak, motibazioak, jarrerak, balioak, prozesu psiko-sozial-kulturalak, alde emozionalak, ideologiak... Allan Bell soziolinguistak dena balorazioekin lotzen du oro har: hizkuntzak baloratzea, “valuing language” (Bell, 2014, 255. or.). Hizkuntzak edo kode linguistikoak baloratuak izaten dira: batzuetan, hizkuntza batzuk beste batzuk baino gehiago baloratzen ditu jendeak, eta beste batzuetan, berdintsu. Baloratze hori azaltzeko hainbat kontzeptu erabiltzen ditu Allan Bellek: ideologiak, jarrerak, ideiak, usteak, sentimenduak, esanahi soziala, pertzepzioak, identitateak, ebaluazioak, talde sozialen interesak...

Kontzeptuok teknikoki desberdinak dira, baina, aldi berean, elkarrengandik oso gertu daude. Alde subjektiboekin lotzen dira guztiak azken

finean, eta hori da interesatzen zaiguna izen batekin edo bestearekin: herritarren motiboak, edo zergatiak, euren hizkuntza-portaerak (transmisioa, ezagutza eta erabilpena) bideratzerakoan. Alegia, ez bakarrik jendearen portaera linguistikoak deskribatzea edo kanpotik azaltzen saiatzea, baizik eta jendearen beraren zergatiak entzutea eta haien portaerak barrutik azaltzea. Jakin behar da zein diren jendearen balioak, zer den garrantzitsua jendearentzat (gogoan izan: Drucker eta Kotler): hizkuntza portaerak balioekin, arau soziokulturalekin eta komunitate bateko zein besteko partaidetza adieraztearekin uztartuta aztertzea, azken finean (Erize, 1997, 125. or.; Fasold, 1984/1992, 207. or.).

Literatura soziolinguistikoan, tradizionalki *jarrerak* (*attitudes*) aipatu dira gehienbat, baina baita *motibazioak* (*motivations*) ere, edo biak batera, hizkuntza biziberritzeko ahaleginekin lotuta, gainera: “The key to language revitalization is motivations. ... Motivational and attitudinal studies need to be part of the background research for any language development, language revitalization or multilingual education program” (Karan, 2008, 2. eta 6. or.). Are gehiago, *hizkuntza ideologiak* jarreraren eta motibazioen multzoak bezala defini daitezke: “A linguistic ideology is basically a set of attitudes and motivations concerning languages” (Karan, 2008, 7. or.). Zentzu berean, David Lasagabasterrek (2013, 26-28. or.) esan duenez, “hizkuntza plangintza orok porrot egin edo arrakasta lortzeko, erabakigarriak dira komunitatearen jarrerak. ... Hizkuntza jarrerak aztertzea, beraz, ezinbesteko betebeharra da”.

Oro har, zehaztasun teknikoak gorabehera, bi kontzeptuek, jarrerak eta motibazioek, zeresan handia dute pertsonen *hautuak* eta *portaerak* azaltzerakoan. Horrela, jarreraren arabera modu batean edo bestean jokatu dute pertsonak, Ralph Fasold soziolinguistak dioenez: “A person’s attitude prepares her to react to a given stimulus in one way rather than in another” (Fasold, 1984/1992, 146. or.). Eta motibazioekin berdintsu gertatzen da, Sánchez Carrión “Txepetx”en arabera (1987, 35. or.), lehenago esan dugunez. Horren guztiaren emaitza pertsonen hautu linguistikoak dira: “Any effective change in a language shift situation must effectuate changes in the attitudes and motivations that influence the language choices that make up the language shift situation” (Karan, 2008, 7. or.).

Gogoan izan behar da hizkuntza-hautaketa soziolinguistikaren muinean dagoen gaia dela, 1.2. atalean esan bezala.

Ralph Fasolden (1984/1992, 148. or.) arabera, hiru multzo nagusitan sailka daitezke hizkuntza-jarrerak:

**Soziolinguistikan,  
klasikoa da  
Joshua Fishman-  
en (1988)  
planteamendua:  
hizkuntzen  
egoera sozialaren  
azterketan,  
erabilera  
hutsarekin  
batera jarrerak  
eta prozesu  
psikologiko,  
sozial eta  
kulturalak  
aztertu behar  
dira.**

- a) Hizkuntzari berari buruzko jarrerak: polita, itsusia, erraza, zaila...
- b) Hizkuntzaren hitzunei buruzko jarrerak: modernoak, atzeratuak, aberatsak, pobreak...
- c) Hizkuntzaren aldeko lanei buruzko jarrerak: alde, aurka, ez alde ez aurka...

1.2. atalean ikusienez, zergatik, jendeak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko aukera duenean, nahiago du bata ala bestea erabili?, galdetzen du François Grinek (1999, 16. or.), jakinik hautaketa horrek, ziur asko, ondorioak izango dituela hizkuntzen iraupen edo ordezkapen prozesuetan. Ba, bata zein bestea erabiliko dute haien lehentasun, nahi, balio eta beharren arabera, alde batetik, kontuan hartuta, bestetik, aukera bakoitzaren kostu material eta ez-materialak, hautaketen baldintzak direnak, azken finean.

Bi kasuetan, hizkuntzari eusten zaionean nahiz galtzen uzten denean, hizkuntz komunitateak hautapen bat egiten du, ikertzaileak azaldu behar lukeena. Hautaketa, Ralph Fasoldek dioenez, ez da bat-batean gertatzen den zerbait, epe luzeko hizkuntz erabilpen eta hautapen eredu iraunkor edo koherenteen emaitza baizik: "Language maintenance and shift are the long-term, collective consequences of consistent patterns of language choice" (Fasold, 1992, 239. or.). Ralph Fasold-ek (1984/1992) erabilera, aukeraketa, jarrerak eta balioak uztartu zituen bere azalpenetan. Soziolinguistika diziplina zientifiko bezala existitzen bada, hizkuntzaren erabilera aukerak daudelako da (1984/1992, 180. or.), eta hitzunek hautuak egiten dituztelako hizkuntzen edo barietateen artean (1984/1992, 208. or.). Eta erabilera eta hautu horien azalpenik sakonena hitzunen nahien eta balioen mailan aurkitzen du Fasoldek: "Language choice at a particular moment is seen as evidence of a person's desire to be associated with the values of one speech community or another" (1984/1992, 208. or.), alegia, hitzunek ematen dieten esanahi edo zentzuan, bestela esanda.

Alde horretatik, eta nik neuk guztiz egokia deritzot ideia honi, ikerketa soziolinguistikoaren zeregina, eta baita historia soziolinguistikarena ere (Erize, 1997), hizkuntz komunitate bat bere hizkuntzari eustera, hizkuntza aldatzera zein elebiduntzera eramaten duten motibazioak/jarrerak eta hautaketa eta erabilpen ereduak erakustea litzateke; eta horretatik ondorioak ateratzea hizkuntza sustatzeari begira.

Soziolinguistikan, klasikoa da Joshua Fishman-en (1988) planteamendua: hizkuntzen egoera sozialaren azterketan, erabilera hutsarekin batera jarrerak eta prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak aztertu behar dira.

Baina ohartzen bagara, erabilera, transmisioa eta gaitasuna lantzea ez dira oharkabean edo inertzia hutsaz gertatzen, hiztun-subjektuen ekintza aktiboak dira: erabilera, subjektu batek (norbanako bat zein talde bat) nahita erabiltzen du; transmisioan, subjektu batek hizkuntza nahita ematen du eta beste batek jasotzen du; eta gaitasuna lantzean, subjektuak hizkuntza nahita ikasten edo hobetzen du. Alegia, portaerak, azken finean, oso lotuta daude subjektuen hautuekin eta haien zentzu edo esanahi subjektiboarekin.

Pierre Bourdieu soziologo ezagunaren terminoetan, transmisioaren eta sozializazioaren erdigunean dagoena berak *habitus* bezala izendatzen duena da: “les schèmes générateurs des pratiques (que l’on peut appeler culture, compétence culturelle ou, pour éviter toute équivoque, habitus)” (Bourdieu, 1972, 255. or.), “un système de schèmes de perception, de pensée, d’appréciation et d’action” (Bourdieu eta Passeron, 1970, 50. or.), bestela esanda. Hau da, pertzepzioak, pentsamenduak, balorazioak eta ekintzak edo portaera praktikoa sortzen edo gidatzen dituen eske-ma-sistema bat. Eta eskemen sistema hori urte askotako lan pedagogikoaren bitartez barneratzen da, familian, kalean eta eskolan. Ez dira nolanhiko gauzak ekintzekin, transmisioarekin eta sozializazioarekin lotuta doazena!, eta haien muinean subjektuen alde subjektiboak aurkitzen ditugu.

## **2. MOTIBO SUBJEKTIBOEN BURUZKO LANEN EGOERA EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAN: EZ DIRA GARATU ERABILERAREN EDO EZAGUTZAREN PAREAN**

### **I**

#### **2.1 Orain arteko lanen sintesia**

Hizkuntzen iraupen, ordezkapen eta biziberritze prozesuen azpian, besteak beste herritarren motibo subjektiboak/motibazioak/jarrerak daudela garbi baldin badago, nola landu dira euskal soziolinguistikan eta nola eta zein neurritan lotu dira erabilpenarekin, transmisioarekin eta ezagutzarekin?

Euskal herritarren motiboekin edo, oro har, alde subjektiboekin zerikusia duten ikerlan asko egin dira euskal soziolinguistikan, balio handikoak. Baina euskal soziolinguistikan (ikerketan, dibulgazioan zein aktibismoan) joera handi bat izan da portaera hutsetan gelditzeko (erabilera, gaitasuna...), hiztunek ematen dieten esanahi subjektiboa ahaztuta edo bigarren mailan utzita. Hutsune horren ondorioz, gizarte zientzien zeregina litzatekeena (esanahia ulertzea, interpretatzea) egin gabe geldi liteke



euskal soziolinguistikan neurri batean. Eta etorkizunean ere bigarren mailan segituko balu, hori eragozpen bat izango litzateke hizkuntzaren sustapen lanetan, herritarren nahi, balio eta behar linguistikoak ongi ulertu eta aintzat hartu gabe nekez lortuko baita behar den eraginkortasuna. Horrela ulertuko nuke nik Jeroen Darquennes irakasle belgiarrak VI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian (Donostia, 2013.01.31) luzatu zuen gomendioa: orain egin behar dena motibazioak aztertzea da, jendearen hautu eta jokamolde linguistikoaren atzean daudenak: “Pay attention to study of motivations behind language choice and language patterns at different stages of life” (Darquennes, 2013).

Azkenaldian, berriz, norabide aldaketa eragin dezaketen ekimen sendoak garatzen ari dira alde subjektiboak ere hizkuntza-plangintzaren lehen mailan finkatzeko. Honako hauek adibidez:

- “Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena” (Martínez de Luna, 2013a).
- *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)*, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz EAE osoko biztanleriarekin Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate (2016a eta 2016b) autoreek egin zuten ikerketa enpiriko berri, konplexu eta zabala<sup>9</sup>.
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza *Eta hemendik aurrera zer?* (2016) txostenaren eztabaida prozesua, erdigunean herritarren nahia jarri duena: “‘Nahi’ izatea, ‘beharrezko eta gogoko’ sentitzea eta halatan hartzea: horra gako nagusiak” (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016, 6. or.).
- “*Gu Gazteok*”. *12-14 urte gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea* (Euskararen Aholku Batzordea. Gazteriaren Batzorde-atala, 2016), Gizarte Antropologian oinarritutako ikerketa etnografikoa.

Euskal soziolinguistikan alde subjektiboak aztertu dituzten lanak ondoko multzoetan bildu daitezke, den-denak aipatzea ezinezkoa zaidala jakinda ere (eta barkamena eskatuz aipatu gabe gelditu zaizkidanengatik):

- Inkesta Soziolinguistikoak eta Mapa Soziolinguistikoak: Aizpurua (1995) (I. Inkesta Soziolinguistikoak), Eusko Jaurlaritza (1989), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea (1997), Eusko Jaurlaritza (1997-1998), Eusko Jaurlaritza (2003), Eusko Jaurlaritza (2005), Eusko Jaurlaritza (2008), Eusko Jaurlaritza (2009),

Eusko Jaurlaritza (2013), Eusko Jaurlaritza (2014) eta Siadeco eta Martin Ugalde (1979).

• Motibazioen edo alde subjektiboen kontzeptualizazioa berariaz landu duten lanak euskal soziolinguistikan:

— Psikosoziolinguistika alorrekoak: Arratibel, Azurmendi eta García (2001); Azurmendi (1977, 1997, 1999, 2001 eta 2013); Espí (1993); eta Montaruli, Bourhis eta Azurmendi (2011).

— Gainerako alorretakoak: Aizpurua (1995) (I. Inkesta soziolinguistikoa), Martínez de Luna (2013b), Sánchez Carrión “Txepetx” (1987) edo Sarasua (2013).

• Euskarari buruzko marko kontzeptualak (edo *framing*-ak), jarrerak, diskurtsoak: Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña (2009), Gorostazu (2013), Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2016), Jausoro, Martínez de Luna eta Dávila (1998), Martínez de Luna (2013a), Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate (2015a eta b), Ortega, Urla, Amorrortu, Goirigolzarri eta Uranga (2015).

• Hizkuntza-politikaren arlokoak: Baztarrika (2009, 2013a eta 2013b), Euskararen Aholku Batzordea (2015) eta Hikuntza Politikarako Sailburuordetza (2015).

• Ekonomia edo lan mundukoak: Arratibel eta Irastortza (2005), Goikoetxea, zuz. (2010), Irastortza (2009), Irastortza, Garcia, Irizar eta Arratibel (2015), Irureta (2013), Marko (2009), Siadeco (2010a eta 2012), Soziolinguistika Klusterra (2011).

• Soziolinguistika historikoaren arlokoak: Erize (1997 eta 1999b); Zalbide, Joly eta Gardner (2015)

• Askotariko lanak: Aizpurua (2015), Amonarriz (2013a, 2013b, 2013c, 2013d), Amonarriz, Ayesta, Erize, Irizar, Laka, Martinez de Lagos, Martinez de Luna, Mendizabal, Sarasua eta Usarralde (2016), Arratibel (2013), Aztiker eta Eusko Jaurlaritza (2010), Erize (2001, 2003a eta 2003b), Eusko Jaurlaritza, Fernández Ostolaza (2013), Igartzabal (2015), ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra (2012), Juaristi (2013), Ozaita (2015), Sánchez Carrión “Txepetx” (1999), Siadeco (2010b), Suay eta Sanginés (2005), “Tesis marzo-abril 2013” (2013), Zarraga et al., 2010.

• Horiez gain, EHUko Hiznet - Hizkuntza Plangintza Graduondoko hainbat sakontze lanetan jorratu dira motibazioak edota gertuko gaiak. Helbide honetan daude eskuragarri gehienak:

<http://hiznet.asmoz.org/index.php/ikerketa-lanak>

Horietatik, arreta berezia jarriko dut Inkesta eta Mapa Soziolinguistikoetan.

## **2.2 Inkesta eta Mapa Soziolinguistikoak: alde subjektiboak gehiago sakontzeko zein alde batera uzteko “gonbite” inplizituak**

Inkesta Soziolinguistikoak euskal soziolinguistikaren adierazpen nagusietakoak dira, ezinbesteko erreferentziak dira eta denok edaten dugu haien informaziotik. Euskal Herri osoko informazioa biltzen dute modu sistematikoan. Aurreneko edizioa 1991. urtean egin zen, eta bost urtean behin errepikatzen joan dira. Guztira bost edizio egin dira orain arte (1991, 1996, 2001, 2006 eta 2011). Horiekin batera, Mapa Soziolinguistikoak ditugu, bost edizio izan dituztenak baita ere.

Inkesta eta mapa soziolinguistikoek, alde subjektiboek dagokionez, bi bide desberdin hartzeko gonbiteak irekitzen dituzte inplizituki: (a) jarreretan (“jarrerak” da inkesta soziolinguistikoetan normalean erabiltzen den terminoa) sakondu eta gainerako faktoreekin uztartzeko gonbitea, eta (b) jarrerak alde batera uzteko gonbitea, gaitasunaren eta erabileraren mesedetan, eta faktore hauekin uztartu gabe.

### *2.2.1 Alde subjektiboetan sakontzeko “gonbite” inplizitua inkesta soziolinguistikoaren ondorioz*

Inkesta soziolinguistikoaren meritua da hasieratik jarrerari buruzko ikereremua garatu izana, eta hori pizgarria izan da gaia kontuan izateko eta bertan murgiltzeko. Gainera, inkesta soziolinguistikoetan datu ugari agertzen dira eta haietatik zuku asko atera daiteke. Jarreraren gaian sakontzeko eta gaitasunarekin eta erabilerarekin lotzeko gonbitea ondoriozta daiteke inkesta soziolinguistikoetatik.

Horixe gertatu zait jarreraren datuak eta hainbat faktoreenak (gaitasuna, erabilera, transmisioa, gune soziolinguistikoak edo hezkuntza-ereduen hautaketa) harremanetan jartzeko ariketa egin dudanean: ikusten da bateratsu doazela, edo loturak daudela haien artean, eta gehiago ikertzeko zantzu argiak eskaintzen dizkigutela. Hona hemen haien laburpena:

- Jarrerak, gaitasuna eta erabilera bateratsu doaz: elkarrekin mugitzen dira hiru atalak, eta hori gehiago ikertzeko zantzua da.
- Jarrerak eta gaitasun linguistikoa: lotura handia dago bi atalen artean, eta hori gehiago ikertzeko zantzua da.


- Aldeko jarrerak eta transmisioa (lehen hizkuntza:  $\geq 5$  urte): lotura handia bi atalen artean. Gehiago ikertzeko zantzua da.
- Jarrerak eta gune soziolinguistikoak: lotura handia. Gehiago ikertzeko zantzua da.
- Jarrerak eta hezkuntza-ereduen hautaketa (EAE, 1983-2006): lotura. Gehiago ikertzeko zantzua da.

Adibide moduan, jarreraren, gaitasunaren eta erabileraren datuak elkarrekin konparatuta agertzen zaizkigun loturak aipatuko dira.

### 2.2.1.1 Jarrerak, gaitasuna eta erabilera bateratsu doaz: elkarrekin mugitzen dira

Jarrerak, gaitasuna eta erabilera elkarrekin harremanetan jartzen baditugu, inkesta soziolinguistikoetako eta Hizkuntza-Adierazleen Sistemako datuak grafikoetan bilduta, nabaria da oro har bateratsu doazela, elkarrekin mugitzen direla, erlazio bat dagoela hiru atalen artean. Horrela egin dut bi grafikotan: 1991-2011 bitarteko bilakaera, alde batetik, eta, bestetik, EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako 2011ko datuak.

Ikus Euskal Herriko osoko 1991-2011 bitarteko bilakaera biltzen duen grafikoa:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016b eta c).

Jarreraren, gaitasunaren eta erabileraren grafikoak ia-ia paraleloak dira, eta, EGOD ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate,

**Jarrerak, gaitasuna eta erabilera elkarrekin harremanetan jartzen baditugu, inkesta soziolinguistikoetako eta Hizkuntza-Adierazleen Sistemako datuak grafikoetan bilduta, nabaria da oro har bateratsu doazela, elkarrekin mugitzen direla, erlazio bat dagoela hiru atalen artean. Horrela egin dut bi grafikotan.**


2016a, 24. or.) esan zenez, pentsa liteke jarrerak sabai funtzioa egiten dutela gaitasuna eta horren menpe dagoen erabilera haz daitezten.

**1. taula: Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (EH osoa) (%).**

	1991	2011
Jarrera: alde + oso alde	46	55
Gaitasuna: elebidun <sup>10</sup> + hartzaile	30	42
Erabilera: euskaraz gehiago + berdin + gutxiago	22	29

(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016b eta c).

Eta ikus orain 2011ko datuak (*V. Inkesta*), lurraldeka zehaztuta:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013).

EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako jarreraren, gaitasunaren eta erabilaren 2011ko datuekin, berriro ere antzeko grafiko bat sortu zaigu: hiru marrak ia-ia paraleloan doaz eta halako harreman bat ageri zaigu haien artean: jarrera altuena den tokian, gaitasuna eta erabilera ere altuenak dira, eta alderantziz.

### 2.2.2 Jarrerak alde batera uzteko “gonbite” inplizitua inkesta soziolinguistikoen eta mapa soziolinguistikoen ondorioz

Paradoxikoki, datuen ebidentziak edo zantzuak jarrerak aintzat hartzearen aldekoak badira ere, normalean jarrerak alde batera utzi eta arreta gaitasunean eta erabileran jartzeko “gonbitea” nagusitu ohi da, bai inkesten material eta aurkezpenetan, bai gainerako eragileek inkestei buruz egiten dituzten adierazpen edo interpretazioetan. Adibidez:

- “Kultura sailburu Blanca Urgell-ek aipatu duenez, inkesta soziolinguistikoa ezinbesteko tresna da hizkuntza-gaitasuna eta erabilera nolakoak diren jakiteko” (“Eusko Jaurlaritzak EAEko V. Inkesta”, 2012).
- “Gazte elebidun gehiago egon arren, euskara gutxiago erabiltzen dute” (Arratibel, 2012).
- “Elebidunen kopurua gehitu den arren, euskararen erabilera gaur egun 1991n baino txikiagoa da” (“Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoa aurkeztu dute”, 2012).
- “Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla: hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, eta hiztunak hizkuntza batean eta bestean jarduteko duen erraztasuna” (Eusko Jaurlaritza, 2008, 54. or.).
- Mapa soziolinguistikoetan (Eusko Jaurlaritza, 1989, 1997-1998, 2005, 2009 eta 2014) ere gaitasuna, transmisioa edo erabilera bezalako faktoreen banaketa geografikoa erakusten da, baina ez jarrerren banaketa geografikoa.
- Eta abar, eta abar: hiztunen portaera kolektibo edota indibidual horien zergati subjektiboek buruzko kezkarik ez da agertzen normalean.

### 3. ZER GERTATU DA?: HERRITARREN PORTAERA LINGUISTIKOEN MOTIBO SUBJEKTIBOEN BILAKAERA (1991-2016)


#### I

“Zer gertatu da?: Herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboek bilakaera (1991-2016)” ataleko informazioa bi iturri nagusitatik lortu dut (1) inkesta soziolinguistikoak eta EUSTAT, alde batetik, eta (2) *Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta 2016b) ikerketa, bestetik.

#### 3.1 Zer gertatu da?: Inkesta soziolinguistikoetako informazioen arabera

##### 3.1.1 Euskal Herriko datu orokorrak

Herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboek bilakaera kuantitatiboa (1991-2011), inkesta soziolinguistikoetako datuak erabilita, ondoko grafikoan jasotzen da:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013, eta EUSTAT, 2016c.)

Eta taula batean, hauek dira jarreraren grafikoko zenbakiak:

**2. taula: Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (EH osoa) (1991-2011) (%).**

	1991	1996	2001	2006	2011
Oso alde + Alde	46	46	45	57	55
Ez alde ez aurka	30	36	35	26	28
Oso aurka + Aurka	24	18	20	16	17

(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016c.)

“Zer gertatu da herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboekin (1991-2016)?” galderaren oinarritzko erantzuna hau da: herritarren ia erdiek (%55) euskara sustatzeari aldeko jarrera dutela, motibo subjektiboak dituztela euskararen sustapenari baiezkoa esateko; eta ia beste erdiek (%45) ez dutela aldeko jarrerarik, ez dutela motibo subjektiborik euskararen sustapenari baiezkoa esateko.

Eta horrekin batera, “Oso aldeko + Aldeko” jarreraren grafikoaren forma dugu: hazkundea baino gehiago, meseta itxura du ia-ia, erakunde baten bizi-zikloan “helduaro egonkorra” bezala ulertu litekeena (Erize, 2013a, 109. or.), %9ko igoerarekin 20 urtean (%0,45eko igoera urtero). Aurkakoak %7 jaitsi dira 20 urtean (%0,35eko jaitsiera urtero). Alegia, euskal munduaren ohiko erronka bat herritar gehienaren onespina lortzea baldin bada, herritarren %9 gehiagorena lortu du 20 urtean eta oraindik herritarren %45en onspena eskuratzea geratzen zaio.


### 3.1.2 Datu xehatuak

3.1.1 ataleko datu horiek sintesi bat dira, hainbat eta hainbat nahi indibidual eta kolektiboren “erresultante” bat, Friedrich Engelsek (Marx eta Engels, 1977, 592-593. or.) esan zuenez (ikus 1.3.2. atala). Halaber, Oso alde + Alde daudenak, eta Oso aurka + Aurka daudenak batuta eman dira. Horregatik, argigarria izan daiteke datuak piska bat desglosatzea edo xehatzea. Ondoko xehetasun hauek eskainiko ditut:

- “Oso alde”, “Alde”, “Ez alde ez aurka”, “Kontra” edo “Oso kontra” jarrerak Euskal Herri osoan.
- EAEn.
- Iparraldean.
- Nafarroan.

#### 3.1.2.1. Euskal Herri osoko desglosea

“Oso alde”, “Alde”, “Ez alde ez aurka”, “Kontra” edo “Oso kontra” daudenak ordena honetan banatzen ziren 2011. urtean Euskal Herri osoan: (1) balio nagusia “Alde” zen (%34,5), (2) hurrengoa “Ez alde ez aurka” (%27,7), (3) hurrengoa “Oso alde” (%20,7), (4) gero “Kontra” (%12,3) eta (5) azkena “Oso kontra” (%4,8).



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013, eta EUSTAT, 2016c).

**“Zer gertatu da herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboekin (1991-2016)?” galderaren oinarrizko erantzuna hau da: herritarren ia erdiek (%55) euskara sustatzearen aldeko jarrera dutela, motibo subjektiboak dituztela euskararen sustapenari baiezkkoa esateko.**




**3. taula: Euskara sustatzeari buruzko jarreraren desglosea (EH osoa) (1991-2011) (%).**

	1991	1996	2001	2006	2011
Alde	28,8	31,4	33,3	34,1	34,5
Ez alde ez kontra	29,6	36,0	34,5	26,4	27,7
Oso alde	17,4	14,4	12,1	23,3	20,7
Kontra	18,0	14,8	15,8	10,9	12,3
Oso kontra	6,3	3,4	4,3	5,4	4,8

(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritzak, 2013, eta EUSTAT, 2016c).

### 3.1.2.2 EAEko desglosea

Orain EAEko banaketa dugu. Ordena berdina da, eta zenbakiak EH osokoak baino piska bat altuagoak: (1) balio nagusia “Alde” zen (%38), (2) hurrengoa “Ez alde ez aurka” (%26), (3) hurrengoa “Oso alde” (%24), (4) gero “Kontra (%9) eta (5) azkena “Oso kontra” (%3):



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritzak, 2013, eta EUSTAT, 2016c).

**4. taula: Euskara sustatzeari buruzko jarreraren desglosea (EAE) (1991-2011) (%).**


	1991	1996	2001	2006	2011
Alde	31	32	37	38	38
Ez alde ez aurka	30	37	34	24	26
Oso alde	21	15	13	27	24
Aurka	15	13	14	8	9
Oso aurka	4	2	3	3	3

(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritzak, 2013, eta EUSTAT, 2016c).

Bide batez, EAEn euskara sustatzearen alde daudenen portzentajeak V. Inkesta Soziolinguistikoaen arabera (%24 + %38= %62) eta EGOD ikerketaren (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016b, 410. or.) arabera (%69)<sup>11</sup> antzekoak dira.

### 3.1.2.3 Iparraldeko desglosea

Iparraldean, berriz, desberdina da banaketa: (1) balio nagusia “Ez alde ez aurka” (%40) zen, (2) hurrengoa “Alde” (%30), (3) hurrengoa “Aurka” (%16), (4) gero “Oso alde” (%9) eta (5) azkena “Oso aurka” (%5).



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013).

### 5. taula: Euskara sustatzeari buruzko jarrearen desglosea (Iparraldea) (1991-2011) (%).

	1991	1996	2001	2006	2011
Ez alde ez aurka	41	39	42	41	40
Alde	36	38	32	32	30
Aurka	13	12	15	15	16
Oso alde	9	11	10	10	9
Oso aurka	1	1	2	2	5


(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013).

### 3.1.2.4 Nafarroako desglosea

Nafarroako grafikoak, azkenik, itxura nahasiagoa du, marra guztiak elkarren artean gurutzatuta, eta Iparraldeko antzeko ordena hartzen du: (1) balio nagusia “Ez alde ez aurka” (%28) zen, (2) hurrengoa “Alde”

**Hezkuntza-eredu linguistikoaren bilakaera gurasoen hautuen emaitza praktikoa da. Hezkuntza-eredua hautatuta, hautu linguistikoak portaera bihurtzen dituzte, eta oso modu hausnartuan, erabaki horrek ondorio handiak dituelako seme-alaben etorkizunean.**

(%23), (3) hurrengoa “Aurka” (%22), (4) gero “Oso alde” (%15) eta (5) azkena “Oso aurka” (%12).



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013, eta EUSTAT, 2016c.)

**6. taula: Euskara sustatzeari buruzko jarreraren desglosea (Nafarroa) (1991-2011) (%).**


	1991	1996	2001	2006	2011
Ez alde ez aurka	24	30	35	28	28
Alde	15	25	21	22	23
Aurka	35	22	25	18	22
Oso alde	8	13	8	16	15
Oso aurka	19	10	12	16	12

(Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013, eta EUSTAT, 2016c.)

### 3.2 Zer gertatu da?: Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014)

Hezkuntza-eredu linguistikoaren bilakaera gurasoen hautuen emaitza praktikoa da. Hezkuntza-eredua hautatuta, hautu linguistikoak portaera bihurtzen dituzte, eta oso modu hausnartuan, erabaki horrek ondorio handiak dituelako seme-alaben etorkizunean. Gainera, 1.2. atalean ikusi dugunez, hiztunen hautuak oso lotuta daude haien nahi eta balio linguistikoekin (Fasold, 1984/1992, 208. or.).

Oso esanguratsua da, beraz, hezkuntza-eredu linguistikoaren bilakaera. Hona hemen “Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014)” grafikoa eta taula:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT, 2016d).

**7. taula: Gurasoen hautu linguistikoak: hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014) (%).**

	1983	1991	1996	2001	2006	2011	2014
D eredu	14	22	32	43	50	58	62
A eredu	64	60	49	36	28	22	20
B eredu	8	17	17	21	21	20	18
X eredu	14	1	1	1	1	1	1

(Datuen iturria: EUSTAT, 2016d).

Grafikoan eta taulan ikusten denez, gaur egun EAeko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasle guztiek euskara ikasten dute, eta horien artean gehienek euskarazko D eredu aukeratzen dute, hau da, nahi eta balio linguistikoaren aldetik euskal hiztun komunitatearen erreferentzia hautatzen dute. D ereduaren aldeko hautuak igoera nabarmena izan du 1983. urtetik (%14) 2014.era arte (%62). B eredu mistoaren (euskara + gaztelania) hautuek ere igoera izan dute (%8tik %18ra). A ereduaren (euskara ikasgai bezala, gainerakoa erdaraz) aldeko hautuek, berriz, jaitsiera nabarmena izan dute 1983. urtetik (%64) 2014.era arte (%20).

Halaber, koherentzia handia dago EAEn euskarazko ereduaren hautaketaren (%62 D eredu, + %18 B eredu) eta euskara sustatzearen aldeko jarreraren artean (%62). Alegia, portaeren eta jarreraren artean koherentzia nabarmena agertzen da kasu honetan. Eta jarrerak portaeratik ondorioztatzen direla dioen teoriaren arabera, %62 + %18= %80koa izango litzateke euskararen aldeko jarrera EAEn, Inkesta Soziolinguistikoan agertzen dena baino zerbait altuagoa; ez txikiagoa. Kasu honetan, behintzat, ez dut oinarri ikusten jarrerak eta ekintzak kontrajartzeko, maiz gurean gertatu ohi denaren antzera: “gauza bat dira euskararen aldeko jarrerak eta beste bat, oso desberdina, praktikan gertatzen diren

portaerak”, jarrerari garrantzia kendu nahian-edo, eta zenbaitetan “disonantzia kognitiboa”ren teoriaren babesa erabiliz eta guzti. Bibliako “beren egintzetatik antzemango diezue” hura (ikus 1.3.1. atala) bete egin da hezkuntza-ereduen hautaketaren kasuan.

### **3.3 Zer gertatu da?: Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa (EGOD) ikerketako informazioen arabera**

EGOD ikerketatik hiru informazio mota lor ditzakegu herritarren motibo linguistiko subjektiboekin zer gertatu den argitzeko:

- Diskurtso egituratu nagusiak (1991-2015).
- Herritar gehienek (bi heren gutxienez) partekatzen dituzten ideia linguistikoak: Zoru Komun partekatua.
- Herritar elebidunek eta erdaldunek desberdin baloratzen dituzten ideia linguistikoak.

#### *3.3.1 EGOD: Diskurtso egituratu nagusiak (1991-2015)*

Aurreko atalean herritarren motibo subjektiboaren bilakaeraren zenbakiak ikusi baditugu gehienbat, oraingoan hamarkada hauetan indarrean egon diren eta herritarren iritzi eta adierazpen linguistikoetan eragin ukaezina izan duten diskurtso linguistiko egituratu nagusiak aipatuko ditugu, *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a, 33-35. or.) esan zena lerro hauetara ekarrita:

Euskararen sustapenari buruzko diskurtso egituratuen bibliografia (Hegoaldekoa landu da, ez Iparraldekoa) aztertu eta gero, hiru multzo nagusi bereizi daitezke:

- Euskara sustatzeko kontsentsu soziopolitikoaren diskurtsoa (1979-2012).
- Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako.
- Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako.

Edozein kasutan, aipatzen diren diskurtsoak tipo petoak edo *garbiak* dira, baina maiz nahasita agertzen dira (puskaka, *framing* desberdinetako zatiak hartuz, etab.: ikus Martínez de Luna, 2013a), bai euskararen sustapenaren aldekoen artean bai kritikoen artean, eta baita ildo batekoen eta bestekoaren arteko eztabaidetan ere.

*Euskara sustatzeko kontsentsu soziopolitikoaren diskurtsoa (1979-2012)*

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan euskararen sustapenaren inguruan adostasunezko enbor edo kate handi bat garatu da denboran zehar, 1979ko *Estatututik* (Eusko Herriko Autonomia, 1980) eta 1982ko *Euskararen Legetik* (Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, 1982) hasi eta 2012ko *Euskara sustatzeko ekintza planeraino* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012).

Bilakaera horretan, *Euskara 21* egitasmoa (= XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak) mugarría izan zen planteamenduak eta kontsentsuak berrituzerakoan, XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. *Oinarrizko txostena* (Euskararen Aholku Batzordea, 2008) eta egitasmoaren sintesia jasotzen duen *Itun berri baterantz* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009) agiritan, besteak beste, ikus daitekeenez.

Oinarrizko agiri edo egitasmo horien alde agertu dira Eusko Legebiltzarra, EAJk zein PSEk gidatutako Eusko Jaurlaritzak eta haien Lehendakariak, eta baita Euskararen Aholku Batzordeak ere, erakunde bakoitzari dagokion neurrian.

- “Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako ituna” (Council of Europe, 1992; Council of Europe, d. g.; “Instrumento de ratificación”, 2001; *La protección de las lenguas minoritarias*, 2011) ere kontsentsu instituzionalaren adierazle nagusien artean kokatzen da.
- Ardura instituzionalak izan dituzten edo dituzten Patxi López (2012a eta 2012b), Patxi Baztarrika (2009) edo Blanca Urgell (2012) pertsonen testuak (instituzionalak zein pertsonalak) ere multzo honetan sailka daitezke.
- Nafarroan, formalki EA Eren antzeko bidea egin zen: 1982ko “Amejoramiento”ren legea (13/1982 Lege Organikoa, 1982) eta 1986ko Euskararen legea (18/1986 Foru Legea, 1986), baina, bai legeen edukian bai haien interpretazioan bestelako kontsentsua nagusitu zen euskarari buruz, UPN eta PSNren artekoan oinarrituta. Nafarroako indar politiko edo sozial euskaltzaleak kontsentsu horretatik kanpo sentitu dira gehienbat, eta sentipen hori areagotu egin zen legea garatzen zuten 2001eko (203/2001 Foru dekretua, 2001) eta 2003ko (29/2003 Foru dekretua, 2003) foru dekretuak eman zirenetik, dekretu horiek legearen interpretazio murriztailea egin zutelakoan.

*Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako*

- Euskararen erabilera normalizatzeko hizkuntza-politika errotik berritzea, nahiz eta azkeneko 40-50 urteetako bilakaeraren alde

**Edozein kasutan, aipatzen diren diskurtsoak tipo petoak edo garbiak dira, baina maiz nahasita agertzen dira (puskaka, framing desberdinetako zatiak hartuz, etab.: ikus Martínez de Luna, 2013a), bai euskararen sustapenaren aldekoen artean bai kritikoen artean.**

onak onartu, eta Euskal Herria osorik euskalduntzea aldarrikatzen dutenak biltzen ditu diskurtso honek (Mendiguren, 2009, Isasi, 2014a eta 2014b, Kontseilua, 2012, edo 2014, esate baterako).

- Gutxienez, Estatutua egin zen garaitik (1979. urtea) dator ikuspegi hau. Batzuetan diskurtso egituratu moduan agertzen da, beste batzuetan marko edo *framing* moduan (ikus Martínez de Luna, 2013a: *framing* aldarrikatzailea) agertzen da, eta beste batzuetan, diskurtso egituratua eta *framing* inplizitua batera agertzen dira (Isasi, 2014, adibidez).

#### *Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako*

- Hizkuntza politika euskara gehiegi sustatzeagatik kritikatu dutenak biltzen ditu diskurtso honek (esate baterako: López Basaguren, 2007, Ruiz Soroa, 2009 eta 2010, Ruiz Soroa et al. 2009; edo, Nafarroako diskurtsoari buruz, Erize, 2001, edo I.M.M., 2013). Baina esan behar da diskurtso egituratuak egin dituzten ahots hauek ez direla asko nabarmendu 2010-2011tik aurrera EAEn, haien agerpen nagusiak 2010era bitartekoak izan baitziren.
- Diskurtso kritiko honetatik kontsentsurako proposamenak ere egin ziren 2007-2009 aldian. Ikus, adibidez: López Basaguren 2007 eta 2009; Ruiz Soroa, 2009; Salbidegoitia, 2009.
- Euskara gehiegi sustatzea kritikatzeko dutenak, eta isla handia dutenak inkesta soziolinguistikoetan (V. Inkesta Soziolinguistikoaren [Eusko Jaurlaritzak, 2013] arabera, %45 inguru ez daude euskara sustatzearen alde Euskal Herri osoan; %38 Euskal Autonomia Erkidegoan), diskurtso edo marko edo *framing* sozial bezala agertzen dira batez ere gaur egun (ikus Martínez de Luna, 2013a: *framing* uzkurra), ez testu egituratu moduan.
- Jon Juaristirenak bezalako adierazpenak (“Jon Juaristi: ‘El futuro del euskera me es muy indiferente’”, 2011), euskararekiko jarrera axolagabea adierazten dutenak, multzo honetan koka litezke.
- Nafarroan, euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtso bat garatu zen 1997tik eraginkortasun handiarekin (Erize, 2001), eta indarrean iraun du (ikus, adibidez, Martínez de Luna, 2013a), modu formalizatuan batzuetan eta *framing* sozial moduan beste batzuetan.

#### *3.3.2 EGOD: EAEko herritar gehienek (bi heren gutxienez) partekatzen dituzten ikuspegi linguistikoak: Zoru Komuna*

*Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* ikerketak (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta

2016b) beste informazio esanguratsu bat ere eskaini digu: gutxienez gizar-teko bi herenek ontzat ematen dituzten ideia (galdera edo esaldi) linguistikoak, Zoru Komuna deiturikoa (Hizkuntza Politika Sailburuordetza, 2016). Hona hemen partekatutako ideia linguistiko horiek taula batean jasota:

**8. taula: EAEko herritar gehienek (bi heren gutxienez) partekatzen dituzten ikuspegi linguistikoak: Zoru Komuna.**

Galderak eta esaldiak	Gutziz + Nahikoa ados (%)
Hurrek ingelesa jakitearen garrantzia?	96
Hurrek gaztelania jakitearen garrantzia?	95
Hurrek euskara jakitearen garrantzia?	93
Bakoitzak du eskubidea zein hizkuntza nahiago duen aukeratzeko, besteen aukera ere errespetatuz.	93
Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da.	93
Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko.	90
Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete.	87
Zuretzat, zenbateko garrantzia du euskaldunek nahi duten lekuetan euskara erabiltzeko aukera izateak?	87
Guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia.	86
Gaur egun, euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati.	86
Guztiok, euskaraz ez dakitenek ere, harro sentitu beharko genuke hemen, eta ez beste inon, euskara dugulako.	84
Garrantzitsua litzateke euskadiko biztanle gehienek euskara ikastea.	83
Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi.	80
Euskara jakiteak laguntzen du hemengo gizartean eta kulturaren integratuago egotean.	79
Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko.	76
Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezen, ez bata bestearen gainetik.	75
Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.	75
Erdaldunek, euskaraz ez ulertu arren, onartu behar dute euskaldunek beraien artean euskaraz egitea.	71
Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke.	71
Orokorrean, nolakoa da euskararekiko duzun interesa?	69
Etokizunean euskararen presentzia (erabilera) handitzea.	69

(Iturriak: Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta 2016b; Hizkuntza Politika Sailburuordetza, 2016).



Beraz, herritar gehienek partekatzen duten ikuspegi horretatik egiten den hizkuntza-plangintzak aukera handia du arrakasta lortzeko iritzi publiko osoan, Joel Benenson ikertzaileak nabarmendu duenez (ikus 1.1. atala).

### 3.3.3 EGOD: Herritar elebidunek eta erdaldunek desberdin baloratzen dituzten ideia linguistikoak

*Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta 2016b), herritar elebidunek (euskara + gaztelania dakizkitenak) eta herritar erdaldun elebatarrek hainbat ideia linguistiko esanguratsu batzuk desberdin baloratzen dituztela agertu zen. Hona hemen horietako batzuk:

- Identifikazio pertsonaleko hizkuntza desberdina dute:
  - Elebidunek euskara (%62) edo euskara + gaztelania (%18) dituzte identifikazio pertsonaleko hizkuntza, identifikazio hizkuntza gaztelania dutenak %18 diren bitartean.
  - Erdaldunek gaztelania (%89) edo gaztelania + euskara (%5) dituzte identifikazio pertsonaleko hizkuntza, identifikazio hizkuntza euskara dutenak %4 diren bitartean.
  - Populazio guztiak, identifikazio pertsonaleko hizkuntza gaztelania (%63) edo gaztelania + euskara (%11) dituzte, identifikazio hizkuntza euskara dutenak %30 diren bitartean.
- Euskal Herriko hizkuntza propioa(k) zein d(ir)en, iritzi desberdina dute:
  - Elebidun gehienek ustez (%60), euskara da Euskal Herriko hizkuntza propio bakarra; euskara eta gaztelania, biak Euskal Herriko hizkuntza propioetat dituztenak %38 diren bitartean.
  - Erdaldun gehienek ustez (%74), ordea, biak, euskara eta gaztelania, dira Euskal Herriko hizkuntza propioak; euskara hizkuntza propio bakartzat jotzen dutenak %21 diren bitartean.
  - Populazio guztian, gehienek ustez (%61) biak, euskara + gaztelania dira Euskal Herriko hizkuntza propioak; eta %35en ustez euskara.
- “Euskara jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko” galderaren aurrean, elebidunak ados agertu dira eta erdaldunak aurka:
  - Elebidunak: %72 ados (eta %21 aurka).
  - Erdaldunak: %58 aurka (eta %33 ados).
  - Populazio osoan, berdinketa: %45 ados, %45 aurka, %8 ez ados ez aurka, %2 Ed-Ee.

- “Euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen dio pertsona bati” galdetuta, ezberdin erantzun dute:
  - Elebidunak: %58 ados (eta %21 aurka).
  - Erdaldunak: %42 ados (eta %40 aurka).
  - Herritar guztiak: %47 ados (eta %33 aurka).

Beraz, bi hitzetan, elebidunek esaten badute Euskal Herriko hizkuntza propio bakarria euskara dela (%60), euskara ezinbestekoa dela herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko (%72), euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen diola pertsona bati (%58), edo identifikazio pertsonaleko hizkuntza euskara dutela (%62), bakarrik elebidunek onesten dituzten balorazioak ematen ari dira, baina balorazio horiek ez dute ez erdaldunen ez populazio osoaren onespina lortzen. Lehia nagusia iritzi publiko orokorra euskararen alde jartzea baldin bada (alegia, erresonantzia positiboak lortzea euskararen sustatzaileen eta herritar guztien artean, 1.2. atalean esan bezala), bakarrik herritar elebidunen aldekotasuna duten balorazio horiek nekez lagunduko dute iritzi publiko orokorra irabazteko lehian. Agian, konbentzituak berrindartzeko balio izango dute, baina ez hainbeste iritzi publikoan erresonantzia edo esparru berriak irabazteko.

#### 4. ZERGATIK GERTATU DA?

##### I

#### 4.1 Herritarrek euren motiboak izan dituztelako

Zergatik gertatu da herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2015) hori?: Herritarrek hala nahi izan dutelako, euren motiboak izan dituztelako. Inplikazio sakonak ditu erantzun honek, nahiz eta lehen begirada batean begi-bistakoa iruditu norbaiti. Herritarrak dira motibo soziolinguistikoen subjektua.

Jende eta erakunde askok, instituzionalak zein ekimen sozialekoak, ikaragarritzko lana egin dute euskararen aldeko mezuak zabaltzeko eta euskara praktikan sustatzeko. Piska bat gehiago zehaztuz, “erresonantzia” kontzeptuaren terminoetan (ikus 1.2. atala), esan genezake gauza batzuetan erresonantzia positiboak gertatu direla herritarren motibazioen eta euskararen sustatzaileen mezuen artean, eta beste batzuetan euskararen sustatzaileek ez dutela erresonantzia positiborik lortu herritarren artean. Horregatik, 20-30 urte igaro eta gero, herritarren %55 euskara sustatzearen alde daude eta %45 ez. Gainera, kontrako joera edota aktore sozialak ere badaude, eta haiek ere eragina izan dute herritarren motibo subjektiboen bilakaeran.

“Nola justifikatu euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen defentsa barruko nahiz kanpoko iritzi publikoen aurrean?” galdera agertu zaigu 1.1. atalean euskara sustatzeko lanen giltzarri bezala. Horren arabera, esan liteke herritarren %45ek ez dutela justifikazio nahikorik ikusten.

Alde horretatik, iradokitzaileak dira Sánchez Carrión “Txepetx” en go-goetak. Autore honen arabera, euskararen sustapen arrakastatsua eta sendoa lortu nahi baldin bada, erakargarritasun berria duten proposamenak egin behar dira: “el idioma necesita aumentar mucho más ... su espacio lingüístico, sus «para qués»” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 2011, 133. or.). Bestela, hiztun berriek, ahalegina egin eta gero, mundu arrunt bat aurkituko lukete, mundu bizi bat aurkitu beharrean: “si tras una travesía ardua y costosa no encuentran ahí las claves de vida, armonía, solidaridad e individualidad que ansían ... entonces, la vida del idioma ... se puede banalizar en un abrir y cerrar de ojos” (Sánchez Carrión, 2011, 133-134. or.). Eta horrelako zerbait gertatu izan balitz euskararen sustapenarekin?

## **4.2 Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak motibazioen eta jarreraren esparruan (AMIA azterketa)**

Oro har, herritarren motibo subjektiboen bilakaeraren zergatiak ulertzeko argigarria da Euskararen Aholku Batzordeak (2015, 156-163 eta 174. or.) “Motibazioen eta Jarreraren” esparruan identifikatu zituen Indarguneak, Aukerak, Ahuleziak eta Mehatxuak (AMIA azterketa) ezagutzea. Hona hemen, hitzez hitz batzuetan eta parafraseatuta beste batzuetan:

### *Indarguneak:*

- Euskararen aldeko oinarritzko jarrera aitortuak: %55 alde.
- Aldeko motibazioak jabetuntzan eta transmisioan gauzatzeko joera.
- Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren sendotasuna eta malgutasuna.
- Euskararen balioak: jakitea praktikoa da, integratzailea, positiboa...
- Euskararen garabiderako positiboak izan diren estrategia diskurt-siboak:

— Diskurtso aldarrikatzailearen indarra aldekoak motibatzen eta bide horretan jarraitzen.

— Diskurtso integratzailearen (eta antzekoen: demokratiko-pluralista, diskurtso instituzionala: euskararen legea, Euskara 21, *Eta hemendik aurrera zer?...*) indarra eta besteak permeabilitatzeko gaitasuna.

*Aukerak:*

- Gizarte integratzailea egiteko joera handitzen ari da.
  - Egoera politiko berriak eta aniztasunaren balioaren zabalpenak euskarari buruzko balio-sorta berri eta erakargarria osatzeko aukera zabaltzen dute, eta horrela motibazio identitario ezberdinak, pragmatikoak eta integratzaileak elkarrekin existitzeko aukera agertzen da.
- Hizkuntzen inguruko balio eta hautemate mota berriak eta anitzagoak.
- Euskararekiko jarrerren bilakaera.
  - Gizartean, oro har, euskarazko gaitasuna eta erabilerarako aukerak zabaltzearekin batera, aldeko jarrera ere zabaltzen jarraitzea.
- IKTen aukera berriak euskararentzat.
- Motibazio eta jarrerren ezagutzan sakontzea.
  - Motibazio eta jarrerren inguruko ikerketak gero eta ugariagoak dira hemen eta nazioartekoan, eta ezagutza gero eta handiagoa lortzen ari da.

*Ahuleziak:*

- Euskararen aldeko jarrerak, mugatuta: %45 ez daude alde.
- Gehiengoaren eskubideen diskurtsoa egituratuago dago ekintza positiboarena baino.
- Euskararen irudi politizatua.
- Euskara ez dela praktikoa dioen diskurtsoa.
- Ziurtasun falta euskara erabiltzeko, euskal hiztun askorengan.
- Euskararen garabidea ahultzen duten estrategia diskurtsiboak.
  - Ohiko diskurtso aldarrikatzaileak mugak ditu hedatzeko (bakarrik konbentzituen segmentuan funtzionatzen du) eta uzkurak uzkurrago bihurtzeko erraztasuna du.
  - Hegemoniaren kontzeptuak eta ametsak “tortillari buelta ematea” moduko esanahia ekar dezake funtsean (“Nire ametsak zure amesgaiztoak dira; zure ametsak nire amesgaiztoak”).
  - Nazionalismo linguistiko euskaltzaletik eratutako diskurtsoak (herri bat, nazio bat, hizkuntza bat) nazionalismo linguistiko erdaltzalea areagotzen du.
- Ikerketetan hutsuneak motibazio eta jarrerren esparruan.
- Interbentzio ahaleginek ez dute beti asmatzen.
  - Herritarren motibo eta behar linguistikoak egiatan jakin gabe, motibazio jarduerak maiz euskalgintzaren ohiko nahietatik egiten dira, ez herritarren nahi eta beharretatik, eta hortik

**Euskararen  
sustatzaileek  
indarguneak  
areagotzen eta  
ahuleziak  
konpontzen  
asmatuko balute,  
erresonantzia  
edo sintonia  
handiagoak  
lortuko lituzkete  
herritarrekin, eta  
horrek bidea  
emango lieke  
aukerak  
baliatzeko eta  
mehatxuak  
arintzeko.**

zenbait arrisku: herritarrengan erresonantzia positiborik ez lortzea edota erreakzio uzkurak eragitea.

*Mehatxuak:*

- Hezkuntza sistema bidezko transmisioak mugak ditu.

Hainbat faktorek eragin ezkorra izan dezakete euskararen bilakaeran.

— Krisiak areagotuta, ikuspuntu ekonomikoa nagusitzen ari da gizartean edozein gai tratatzeko. Hortaz, dirua gutxiengo hizkuntzetan inbertitzea, dirua xahutzea litzateke.

> Hala ere, oraindik EAEko biztanleriaren gehiengoarentzat ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.

— Diskurtso euskaltzale desagokiaren eraginez kontrako jarrera aktibatzea sektore axolagabeengan.

- Euskara sustatzearen aurkako jarreraren pisua: %12. Nahiko desaktibatuta dago gaur egun EAEn, baina tentuz ibili behar da bere berraktibazioa ez eragiteko.
- Etorkizunerako ikuspuntu pasiboa: uste izatea euskararen garapena denborarekin konponduko dela.

## 5. ZER GERTA LITEKE ORO HAR, MOTIBO SUBJEKTIBOEN DAGOKIENEZ, DATOZEN HOGEI URTEAN?

I

### 5.1 Herritarrek nahi eta sentitzen dutena gertatuko da

Lehen ideia hau da: herritarrek nahi eta sentitzen dutena gertatuko da euren motibo linguistiko subjektiboekin.

Beste maila batean, etorkizuneko bilakaera euskararen sustatzaileen baitan ere egongo da: nola jokatzen duten 4.2. ataleko AMIAN identifikatutako indarguneak, aukerak, ahuleziak eta mehatxuak faktoreen aurrean. Hau da, euskararen sustatzaileek *indarguneak areagotzen* eta *ahuleziak konpontzen* asmatuko balute, erresonantzia edo sintonia handiagoak lortuko lituzkete herritarrekin, eta horrek bidea emango lieke *aukerak baliatzeko* eta *mehatxuak arintzeko*. Eta, sintonia horren ondorioz, herritarrek gorago eramango lituzkete haien euskararekiko motibo subjektiboak.

## 5.2 Proiektzioak

Herritarren nahiaz gain, etorkizunari begirako eztabaida bi proiektziotan ere oinarritu dut:

- 1) Jarrerak (EH osoa): 1991-2011 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa.
- 2) Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE): 1983-2014 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa.

Lehendabizikoa, jarreraren proiektzioa, nik neuk egin dut, 1991-2011 bitarteko bilakaeraren datuetatik abiatu, eta datu horiek proiektatu ditut eszenario plausible batean oinarrituta: Euskararen Aholku Batzordeak (2015, 156-163 eta 174. or.) identifikatutako Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak (AMIA azterketa) zein joera demolinguintzikoak datozen urteotan berdintsu mantendu litezkeelako hipotesian<sup>12</sup>, euskararen aldeko tentsioari eutsiko zaiola, alegia. Ni ez naiz demografian aditua, baina ausartu naiz ariketa hori egitera, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako aurrera begira bilakaeraren zenbaki objektibo materialetan oinarrituta eztabaidatzea, eta nahiak eta errealitate posiblea bateratzen saiatzea.

Bigarren proiektzioa, gurasoen hautu linguistikoei buruzkoa, *Eta hemendik aurrera zer?* (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) dokumentutik hartu dut.

Ez da batere ohikoa euskararen etorkizunari buruz zenbakiaren proiektzioan oinarrituta eztabaidatzea. Normalean, eztabaidatzen bada, egileen nahien edota helburu ideologiko-linguintzikoaren inguruan egiten dira eztabaidak, ez errealitateko datuetan oinarrituta. Nik dakidala, *Eta hemendik aurrera zer?* (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) txostenean bakarrik eztabaidatu da etorkizunari buruz zenbakiak oinarri hartuta.

Halaber, argi eduki behar da proiektzioak eragileen ekintzarako deia direla, euskararen aldeko tentsio soziala lantzeko.


Beste bi eszenario gehiago ere posibleak lirateke, noski, erakundeen bizi-zikloan (Erize 2013, 109. or.) gertatu ohi den bezala: edo euskara sustatzeko motibazioen hazkunde-aldi berria, edo motibazioen gainbehera. Gogoan izan erakundeen bizi-zikloaren faseak hauek izan ohi direla: Hasiera, Hazkundera, Helduaroa, eta, azkenik, edo (a) Gainbehera, edo

(b) Hazkunde-aldi berria. Hainbat faktoreen baitan dago euskara sustatzeko motibazioen hazkunde-aldi berriaren edo gainbeheraren eszenarioak betetzea ala ez: batez ere AMIAko zein alde, indarguneak eta aukerak, edo ahuleziak eta mehatxuak, nagusitzen den. Baina eszenario horiek kalkulatzeko ezinezkoa gertatzen zait.

Hona hemen “Zer gerta liteke?” galderari erantzuten dioten proiektzioak:

### 5.2.1 Jarrerak (EH osoa): 1991-2011 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa (%)

Aurrena, proiektzioa grafiko batean aurkeztuko dugu:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria [1991-2011]: EUSTAT, 2016c).

Eta taula honetan grafikoari oinarria ematen dioten zenbakiak aurkezten dira:

### 9. taula: Jarrerak (EH osoa) (%). (1991-2011 bilakaera errealak, eta 2036 arteko eszenario baten estimazioa).


	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021	2026	2031	2036
Oso alde+ alde	46,2	45,8	45,4	57,3	55,2	57,5	59,7	62,0	64,2	66,4
Ez alde ez kontra	29,6	36,0	34,5	26,4	27,7	27,2	26,8	26,3	25,8	25,4
Kontra + Oso kontra	24,2	18,2	20,1	16,3	17,1	15,3	13,5	11,7	10,0	8,2

(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria [1991-2011]: EUSTAT, 2016c).

Beraz, hogeitau urte barruko nire aurreikuspenaren arabera, aldeko jarrerak 2011ko %55etik 2036ko %66ra igaroko lirateke Euskal Herri

osoan, eta %34ko tartea legoke oraindik aldekoak %100eraino iristeko. Ez alde ez aurka gehi aurka daudenak %45 ziren 2011n eta 2036an %34 aurreikusten dira.

Ondoren, modu berean, EAEko grafikoa eta taula aurkezten dira:



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria [1991-2011]: EUSTAT, 2016c).

10. taula: Jarrerak (EAE) (%). (1991-2011 bilakaera erreala, eta 2036 arteko proiektzioa).

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021	2026	2031	2036
Oso alde + Alde	52,1	47,3	50,3	64,7	62,3	64,9	67,5	70,0	72,6	75,1
Ez alde ez kontra	29,5	37,2	33,6	24,0	26,1	25,2	24,3	23,5	22,6	21,7
Oso kontra + Kontra	18,4	15,5	16,2	11,2	11,6	9,9	8,2	6,5	4,8	3,1

(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria [1991-2011]: EUSTAT , 2016c).

EAEen ere, 2036rako nire proiektzioaren arabera, aldeko jarrerak 2011ko %62tik 2036ko %75era igaroko lirateke, eta %25eko tartea legoke oraindik aldekoak %100eraino iristeko. Ez alde ez aurka gehi aurka daudenak %38 ziren 2011n eta 2036an %25 aurreikusten dira.


Oro har, miraririk ez dugu espero behar, ez diogu geure buruari miraririk exigitu behar, eta ez diogu inori miraririk exigitu behar, ez eta inorekin haserretu ere miraririk ez duelako egiten.

**Beraz, hogei urte barruko nire aurreikuspenaren arabera, aldeko jarrerak 2011ko %55etik 2036ko %66ra igaroko lirateke Euskal Herri osoan, eta %34ko tartea legoke oraindik aldekoak %100eraino iristeko.**



### 5.2.2 Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa)

Grafiko batean aurkeztu dut proiektzioa, eta ondoren taula batean.



(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016, 9-10).

#### 11. taula: Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa) (%).

	1983	2014	2036
D eredu	14	62	81
B eredu	8	18	17
A eredu	64	20	2
X eredu	14	1	0

(Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016).

Proiektzioaren arabera, gurasoek euskarazko hezkuntza-ereduak aukeratzeko dute datozen 20 urtean, eta igoera nabarmena izango luke D ereduak: %81 izateraino. A ereduak, berriz, jaitsiera nabarmena izango luke, %2 izateraino.

## 6. SINTEZIA, ONDORIOAK ETA EZTABAIDA: ZER KOMENI DA EGITEA?

### I

#### 6.1 Sintesia

Lan honen *helburuak* bi dira: (i) euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016) aztertzea eta aurrera begirako bideak identifikatzea, bai hizkuntza-plangintzan bai ikerketan; eta (ii) herritarren motibo subjektiboak euskal ikerketa eta praktika soziolinguistikokoan finkatzeko justifikazioan aurreratzea.

Euskal Herriko herritarren %55ek euskara sustatzearen aldeko jarrera badute eta herritarren %45ek ez badute aldeko jarrerarik, edo EAeko 13-14 urteko ikasleek (DBH2) gustukoago badute gaztelania (%71) euskara (%55) baino, nabarmena da euskararen sustatzaileek erronka handia dutela oraindik populazioaren borondatea irabazte aldera. Eta hori motibo subjektiboen, jarreraren eta, oro har, alde subjektiboen esparrua da.

Hizkuntza-plangintzaren gako nagusietako bat da herritarren portaeren motibo linguistikoak sistematikoki ezagutzea eta kontuan hartzea, herritar batek euskararen munduko erakunde eta kideei eska liezaiekeen bezala: “Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko; galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?”.

*Motibo subjektibo*ei buruzko lanen egoera euskal soziolinguistikan: ez dira garatu erabileraren edo ezagutzaren parean. Lan asko egin dira euskal soziolinguistikan, eta balio handikoak. Baina, oro har, esan liteke euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboak ezagutzeko eta aintzat hartzeko interesa bigarren mailan egon dela euskal soziolinguistikan (ikerketa mailan zein aplikazio edo aktibismo mailan ere), erabilerari edo gaitasunari eman zaien garrantziarekin alderatuta; eta etorkizunean ere bigarren mailan segituko balu, hori eragozpen bat izango litzatekeela hizkuntzaren sustapen lanetan, herritarren nahi, balio eta behar linguistikoak ongi ulertu eta aintzat hartu gabe nekez lortuko baita behar den eraginkortasuna. Argigarria da Inkesta eta Mapa Soziolinguistikoekin gertatzen dena, alde subjektiboak gehiago sakontzeko zein alde batera uzteko “gonbite” inplizituak aurkitzen ditugulako haietan.

Lau kontzeptu giltzarri erabili dira lan honetan: *Ekintza soziala*, *Motiboa* (motibazioa), *Hautu linguistikoa* eta *Erresonantzia*. Lauak elkarrekin lotuta ulertzen ditut. Ekintza soziala eta motiboa kontzeptuak Max Weber klasikoaren ildotik ulertzen ditut: *ekintza soziala* subjektuarentzat

esanahi subjektiboa duen eta besteengana orientatuta dagoen giza portaera bat da; eta *motiboa* (*motibazioa*) portaera edo ekintza sozialen esanahi edo zentzu subjektiboa da. *Hautu linguistikoa* (edo hizkuntza-hautaketa, *language choice*) kontzeptua, euskal soziolinguistikan gutxi landu bada ere, nazioarteko literatura soziolinguistikoarekin batera, eta, zehazkiago, Ralph Fasold eta François Grin-ekin, ulertzen dut: hiztunek hautuak egiten dituzte dakizkiten hizkuntzen zein barietateen artean, eta hautu horien bidez hiztun komunitate baten edo bestearen balioekin lotuak izateko nahia adierazten dute, besteak beste. *Erresonantzia* kontzeptua Snow eta Benford-ekin ulertzen dut: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrotzen denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean, halako sintonia bat sortzen denean (Snow eta Benford, 1988). Diskurtso edo markoek arrakasta izan eta erresonantzia positiboak lortzen badituzte, adostasun berri bat zabaltzen dute gizartean eta, horrela, mugimenduak aldeko pertsonak mobilizatzea, neutroak irabaztea eta aurkariak desmobilizatzea lortzen du. Erresonantzia positiborik edo sintoniarik ez bada sortzen, berriz, kausa sozial horrek ez du arrakasta handirik lortzen.

Gizarte zientzietan ikuspegi desberdinak daudela jakinik ere, ni neu, lan honetan, giza ekintzak motibatuak bezala ikusten dituen eta alde subjektiboak aintzat hartzen dituen *ikuspegi interpretatzailean* kokatu naiz batez ere, hori gertatzen zait argigarriena eta, gainera, berriena euskal soziolinguistikarako. Halaber, subjektuen agentzia eta gizarte egiturak batera eta kontrajarri gabe aztertzen dituen ikuspegiaren kokatu naiz, ez baldintza sozialen determinismoan.

Lanak *metodologia* mistoa izan du. Alde batetik, gaiari buruzko orain arteko literaturaren hustuketa eta ebaluazio kritikoa egin dut, eta informazioak, kuantitatiboak zein kualitatiboak, orain arteko inkesta edo ikerketetatik hartu ditut. Bestetik, etorkizunari begirako eztabaida (“Zer gerta liteke 2016-2036 epean?”) bi proiektiotan oinarritu dut, erreferentziako eszenario plausible bat hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako aurrera begira bilakaeraren zenbaki objektiboetan oinarrituta eztabaidatzea, eta nahiak eta errealitate posiblea bateratzen saiatzea. Esandako proiektzioak bi hauek dira: (i) Jarrerak (EH osoa): 1991-2011 bilakaera, eta 2036 arteko proiektzioa, nik neuk egin; eta (ii) Gurasoen hautu linguistikoak: Hezkuntza-ereduak (EAE): 1983-2014 bilakaera,

eta 2036 arteko proiektzioa (*Eta hemendik aurrera zer?* [Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016] dokumentutik hartua.

“Zer gertatu da herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboekin (1991-2015)?” galderak erantzun konbinatu bat du:

- V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Euskal Herri osoko herritarren erdiek baino gehiagok (%55) euskara sustatzearen aldeko jarrera dute, motibo subjektiboak dituzte euskararen sustapenari baiezkoa esateko; eta ia beste erdiek (%45) ez dute aldeko jarrerarik, ez dute motibo subjektiborik euskararen sustapenari baiezkoa esateko. Euskararen sustatzaileen ohiko erronkak bi baldin badira (batetik, lortutako aldekatasunei eustea, eta, bestetik, herritar gehienen onespina lortzea), azkeneko 20 urtean aldekatasunei eustea lortu du, eta %9 gehiago igotzea ere bai (%46tik %55era, %0,45eko igoera urte bakoitzeko), baina oraindik herritarren %45en onspina eskuratzea geratzen zaio. Nabarmena da datu horien grafikoak, hazkundera baino gehiago, meseta itxura duela ia-ia, erakunde baten bizi-zikloan “helduaro egonkorra” bezala uler litekeena.

- Halaber, oso esanguratsua da hezkuntza-eredu linguistikoen hautaketaren bilakaera, hezkuntza-eredua hautatuta, gurasoek hautu linguistikoak portaera bihurtzen dituztelako. Nahi eta balio linguistikoen aldetik euskal hiztun komunitatearen erreferentzia hautatzen dute. EAEn, euskarazko D ereduaren (dena euskaraz, gaztelania ikasgai bezala) aldeko hautuak igoera nabarmena izan du 1983. urtetik (%14) 2013.era arte (%61). B eredu mistoaren (euskara + gaztelania) hautuek ere igoera izan dute (%8tik %19ra). A ereduaren (euskara ikasgai bezala, gainerakoa gaztelaniaz) aldeko hautuek, berriz, jaitsiera nabarmena izan dute 1983. urtetik (%64) 2013.era arte (%20).

- 1991-2016 epealdian nagusi izan diren diskurtsoen berri, zein 2015ean nagusi ziren elemento diskurtsiboen ezaugarriak, *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta 2016b; eta Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, 2016) ikerketak esan digu:

— Diskurtso egituratu nagusiak.

> Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren diskurtsoa.

> Diskurtso kritiko bat, gutxiegi egiten delako.

> Diskurtso kritiko bat, gehiegi egiten delako.

- Herritar gehienek (bi heren gutxienez) partekatzen dituzten ideia linguistikoak: Zoru Komuna. Hona hemen horietako batzuk:
  - > Euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren garrantzi batezgarria.
  - > Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua, bakoitzaren hautu linguistikoak onartuta.
  - > Euskararen garrantzi praktikoa gaur egungo gizartean.
  - > Euskararen presentzia etorkizunean handitzeko nahia.
- Herritar elebidunek (euskara + gaztelania) eta erdaldunek desberdin baloratzen dituzten ideia linguistikoak.
  - > Identifikazio pertsonaleko hizkuntza desberdina dute.
  - > Euskal Herriko hizkuntza propioa(k) zein d(ir)en, iritzi desberdina dute.
  - > “Euskara jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko” galderaren aurrean, ezberdin erantzuten dute.
  - > “Euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen dio pertsona bati” galdetuta, ezberdin erantzun dute.

Zergatik gertatu da herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2015) hori?

- Oinarrizko erantzuna hau da: herritarrek hala nahi izan dutelako, herritarren nahia hori izan delako ditugu datu horiek: euren motibo subjektiboak izan dituztelako. Herritarrak dira euren motibo sozio-linguistikoaren subjektua.
- Jende eta erakunde askok, instituzionalak zein ekimen sozialekoak, ikaragarriko lana egin dute euskara sustatzeko. Gai batzuetan erresonantzia positiboak gertatu dira herritarren motiboaren eta euskararen sustatzaileen mezuen artean, eta beste batzuetan euskararen sustatzaileek ez dute erresonantzia positiborik lortu. Gainera, kontrako joera edota aktore sozialak ere egon dira, eta haiek ere eragina izan dute herritarren motibo subjektiboaren bilakaeran.
- Herritarren motibo subjektiboaren bilakaeraren zergatiak ulertzeko argigarria da Euskararen Aholku Batzordeak motibazioen eta jarreraren esparruan identifikatu zituen Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak (AMIA azterketa) ezagutzeko, faktore horiek baitira bilakaeraren eragina izan dutenak.

Zer gerta liteke oro har, motibazioei dagokienez, datozen hogeitun urteetan, 2036ra arteko urteetan?

- Lehen ideia hau da: herritarrek nahi eta sentitzen dutena gertatuko da euren motibo linguistiko subjektiboekin.
- 2036. urterako nire proiektioaren arabera, Euskal Herri osoan aldeko jarrerak 2011ko %55etik 2036ko %66ra igaroko lirarteke, eta %34ko tarte gertatuko litzateke oraindik aldekoak %100eraino iristeko. Ez alde ez aurka gehi aurka daudenak %45 ziren 2011n eta 2036an %34 aurreikus daitezke.

## 6.2 Zer komeni da egitea motibo subjektiboaren esparruan?: Ondorioak eta Eztabaida

Ondorio nagusia da herritarrek euren motibo subjektiboak dituztela euskararekin eta erdararekin egiten dutena egiteko. Eta *proposamen* nagusia da euskararen sustatzaileek kontuan hartu behar dituztela/ditugula herritarren motibo subjektiboak: hizkuntza-politikan, plangintzan, lan praktikotan eta ikerkuntzan. Ez dira auresuposatu behar. Galdetu behar zaizkie herritarrei, modu sistematikoan.

Hiztunen motibazio linguistikoetan goitik-beherako prozesuen bidez eragitea ez da erraza; eta portaeretan eragitea ere, batez ere portaera ez-formaletan, ez da erraza. Gakoa sustatzaileen eta herritarren artean erresonantzia positiboak lortzea da, lan honetan esaten ari denez.

Zentzu berean, Ofelia Garcia ikertzailearen iritziz (2015), hizkuntza-politikaren edo plangintzaren esparruan goitik-behera eragitearen ikuspegiarekin jarduteko joera egon bada ere, azkenaldian kolokan jartzen ari da komunitatearen hizkuntza portaerak autoritatez jantzitako erakundearen eraginez aldatuak edota planifikatuak izan daitezkeenik: “scholarship has challenged the idea that a community’s way of speaking could be planned and changed by authoritative agencies” (Garcia, 2015, 353. or.). Trukean, hiztunek agentzia (*agency*) dutela (agentzia = ekintzak bere kabuz egiteko ahalmena, 1. atalean aipatu denez) nabarmentzen duen eta askotariko testuingurua kontuan hartzen duen ikuspegi dinamikoago bat nagusitzen ari da egile horren arabera: “The line of power is not always linear from top to bottom since speakers have agency and language policy interacts with ideologies, global, national, and local forces. This more dynamic view of language policy...” (García, 2015, 355. or.).

Hori esanda, argi utzi nahi dut posible eta desiragarria iruditzen zaidala euskararen sustatzaileek lan aktiboak egitea, noski, azken hamarkadetan egin den moduan, eta txosten honetan ere agertzen ari denez.

**Komeni da euskararen aldeko giro positiboa zein aukera linguistikoaren arteko berdintasuna bultzatzea eta elikatzea, bai gizarte osoan bai herritar elebidunen artean. Giro positibo hori sortzeko egokiena izan daiteke herritar gehienek partekatzen dituzten Zoru Komuneko (ikus “Zer gertatu da?” atala) ideien bisiotik jardutea.**

Ondorengo lerroetan “Zer komeni da egitea motibo subjektiboaren esparruan?” galderari erantzuten saiatuko naiz, batzuetan neure ondorioak aurkezten, beste batzuetan EGOD (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a, 137-142. or.) ikerketako gomendioak erabiltzen, eta zenbaitetan José María Sánchez Carrión “Txepetx” en gogoeta pizgarriak ere lerro hauetara ekartzen. Nik, soziolinguista bezala, azterketak eta gomendioak eskaini ditzaket bakarrik: gero norberak erabakiko du zer egin bere buruarekin eta bere lan alorrean: administrazio publikoek, ekimen sozialeko erakundeek, ekimen pribatukoek, komunitate zientifikoak, eta hizkuntzekiko interesa duten pertsonak.

Bi atal bereiziko dira: (i) sustatze lanari dagozkion gaiak, eta (ii) ikerketa berriei dagozkienak:

▼ *Zer komeni da egitea sustatze lanari dagokionez?:*

- Komeni da ulertzea herritarrek, hiztunek, portaera linguistikoak dituztela, hautaketak egiten dituztela eta motibo subjektiboak dituztela horiek egiteko, baldintza sozial objektiboak ere badaudela ahaztu gabe. Alegia, onartzea jendeak, herritarrek, euren motiboak dituztela euskararekin eta erdararekin egiten dutena egiteko.
- Komeni da euskararen aldeko giro positiboa zein aukera linguistikoaren arteko berdintasuna bultzatzea eta elikatzea, bai gizarte osoan bai herritar elebidunen artean. Giro positibo hori sortzeko egokiena izan daiteke herritar gehienek partekatzen dituzten Zoru Komuneko (ikus “Zer gertatu da?” atala) ideien bisiotik jardutea, bai neurri praktikoak hartzerakoan bai bisioak edo mezuak zabaltzerakoan. Elebidunek eta erdaldunek partekatzen dituzten balioetatik garatzen den euskararen sustapenak aukera handia du herritar gehienekin eraginkorra izateko, aldeketasunak lortzeko, gizartearen sustraitzeko eta urrats arrakastatsuek egiteko.

— Erakargarritasun positibo hori berdintasuna benetan defendatzen eta ohiko ereduak kualitatiboki gainditzetik etorriko litzateke, Sánchez Carrión “Txepetx” en ustez: inork ez du euskararen normalizazioaren beldur izan behar, diskriminazio berri bat dakarrela pentsatuz: “Esa articulación [de la comunidad lingüística], para que sea posible, debe ser cualitativamente superior al modelo al que se aspira a sustituir, porque difícilmente atraerá a su seno las adhesiones que necesita si provoca miedos y recelos (capitalizables por el estado) a exclusiones y discriminaciones más virulentas” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1999, 77. or.).

— Soilik elebidunek babesten dituzten balioen bisiotik (ikus “Zer gertatu da?” atala) aritzearekin, ordea, kontuz ibili! Bisio edo balio horiekin bat ez datozen herritarrak, herritar gehienak, alegia, nekez hurbilduko dira euskarara, edo urrundu egingo dira. Berdin erdaldunek bakarrik dituzten balioetatik arituz gero.

> Adibidez, euskara euskal herritarren hizkuntza propio bakartzat jotzen duten planteamenduak<sup>13</sup> ez datoz bat herritar gehienek bi hizkuntzak propiotzat hartuz adierazitako ikuspegiarekin.

- Komeni da ohartzea motibazio kanpainen, kanpoko motibazio estrintsekoa (ik. “Sarrera” atala) lantzen dutena, ez dutela asko laguntzen, “sustatzaileek herritarrak motibatzea” motako kanpainen ez dutela asko funtzionatzen. Gogoan izan: “Las personas no pueden ser motivadas [desde fuera]; esa puerta está cerrada desde dentro” (UNED, 2014, 13. gaia, 8. or.). Motibazioak barneko zerbait dira, eta benetan funtzionatzen dute intrintsekoak direnean, herritarrei barrutik sortzen zaizkienean, edo, gehienez ere, herritarren eta sustatzaileen artean erresonantzia positibo berriak gertatzen direnean, bi aldeak norabide berean lerrotatuta daudelako (Snow eta Benford, 1988, 198-199. or.).

- Sustatzaileen esku dago, halaber, euskal hiztun komunitatearen *gune sinbolikoa* (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1987) lantzea eta garatzea, eta hori *Berdintasunaren Diskurtso*tik egitea, gune sinbolikoak erreferentziako taldearen zeregin kualitatiboa betetzen baitu komunitate osoari begira. Gogoan izan gune edo espazio sinbolikoaren definizioa:

Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de un desarrollo completo, o, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua [hiztun osoak: euskara naturala gehi kulturala dutenak]. Ellos son el corazón del idioma a partir del cual es posible producir las condiciones que permiten en el tiempo oportuno revitalizar una comunidad lingüística. (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1987, 65. or.)

Gune sinbolikoa garatzeko gakoa diskurtso berri bat sortzea da: “un nuevo discurso que al descubrir de nuevo un sentido perdido aglutina a los hablantes completos, nuclearizando el espacio simbólico de la comunidad y permitiendo su articulación” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1987, 394. or.). Eta diskurtso berri hori *Berdintasunaren Diskurtsoa* da, hain zuzen ere: “la función a la que se adscribe la



lengua minorizada es, precisamente, la de promover la igualdad entre las lenguas, la de hacerla portadora de un Discurso de Igualdad, innovador, que abra un nuevo tiempo histórico en el que se garantice la plenitud funcional y la autorreproducción de cualesquiera comunidad lingüística” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1999, 281. or.).

Berdintasunaren Diskurtsotik aritzeak ondorio nabarmenak ditu defendatzen diren helburuetan eta aldameneko hizkuntzekin, baita hizkuntza nagusiekin ere, ezarri nahi den harreman ereduari: “lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1999, 282. or.). Alegia, ideia hauek “no son para usarlas contra el dominador convirtiendo al verdugo en víctima y a la víctima en verdugo, reproduciendo incansablemente un círculo vicioso, cainita” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1999, 182. or., 134. oin-oharra).

- Sustatzaileen esku dago, giro positiboa lortze aldera hizkuntza kontuetan, herri honetako erakundearen arteko elkarlana eta osagarritasuna bultzatzea (eta elkarrekiko etsaigo edo lehia antzuek saihestea), bakoitza bere zereginetatik eta besteen zereginak ere errespetatuz: herritarrek aukeratutako erakundeak (parlamentuak, gobernuak, aldundiak/diputazioak, udalak, Iparraldeko erakundeak...), unibertsitateak, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, mota guztietako ekimen sozialak, arlo pribatuko ekimenak.

- Motibazio mota guztiei zilegitasuna aitortzea komeni da, haien motibazioa edozein izanda ere, herritar guztiek kabitzen ahal direla senti dezaten: motibazio integratzailea/ez integratzailea, identitarioa/ez identitarioa, pragmatikoa/ez pragmatikoa... *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentuak (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) ere proposatzen duenez.

- Derrigortasun, arautze edo lege kontzeptuak eztabaidatuak bezain gatazkatsuak dira, eta neurri batean eztabaida horiek hizkuntza-politikaren zilegitasuna ere auzian jartzearaino iritsi litezke. Horrek inplikazioak ditu herri-administrazioen jarduerari begira, beren zereginetako bat arauak eta neurri zehatzak bultzatzea eta betearaztea baita. Zilegitasun sozialik gabeko derrigortasun, arautze edo legeen ondorioz, diskriminazioaren sentimenduak —euskaldunena zein erdaldunena— erraz erabili daitezke diskriminazioaren susmoa areagotzeko. Aurreko puntuaren islarik garbien eta garrantzitsuena —ez bakararra— da euskararen eta lanpostuen arteko lotura, maiz haserre giroan agertzen dena. Dena den, inposaketaren aurrean ele-

bidunek beste irakurketa mota bat egiten dute. Batetik, gaur egun EAEn “gozatzen” duten egoera euskara zenbait arlotan derrigor izateari esker lortu dela diote; efektu positiboak ikusten dizkiote.

- Inmobilismoan gelditzea izan liteke hizkuntza-politikarako zoru komun partekatu zabal baten bila abiatzearekin dagoen arriskua. Bestela esanda, “euskara muinean, bizikidetzan helburu” asmo orokor horretan, liskarrak eta istiluak ekiditeko asmoz, tentazioa izan liteke gutxiegi egitea.

- Arriskuak arintze edo saiheste aldera lagungarri izan liteke gogoratzea EGOD ikerlaneko parte-hartzaileen aldetik babes handiena jaso duten ardatz estrategiko edo performatiboak zein diren:

- Elkarkidetzan oinarritutako diskurtso euskaltzalea sendotzea, guztion hizkuntza eskubideetan eta elkarrenganako errespetuan oinarrituta.

- Euskara balio positiboekin eta bizipen gustagarri pertsonalekin lotzea; derrigortasunetik eta eginkizunetatik (ikasketak, lana... ) bizitzaren bestelako eremuetara zabaltzea: gozagarria, plazerra, balore sozialekin eta funtzionalitatearekin lotua.

- Euskararen hautemate eta irudia hobetzea, arreta batez ere gazte jendearengan jarriz. Horretarako, bereziki garrantzitsua da gizarte eredu berriak eskaini eta euskararen hautemate eta irudia hobetzea: erakargarria, modernitatea, *cool-a...*

- Hiper-zuzentasuna atzean utzi eta hizkuntza multifuntzionala, espresiboa, biziagoa, komunikatiboagoa bultzatzea. Horrek, erabilerarako deserosotasuna arintzen eta erabilera bera areagotzen lagunduko luke.

#### ▼ Zer komeni da egitea ikerketa berriei dagokienez?

Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza gizartearen taupadetatik aldendu ez daitezen, ikerkuntza soziolinguistikoak berebiziko garrantzia dauka. Gutxiago dakigu alde subjektiboari buruz objektiboari buruz baino. Hona hemen ideia batzuk ikerketa berriei begira:

- Alde subjektiboak finkatzea ikergai eta aldagai bezala: “Herritarrek gaitasun maila hau dute, erabilpen maila hau dute, eta motibo subjektibo hauek dituzte hori egiteko”. Finkatzea, inkesta eta mapa soziolinguistikoetan eta haien laburpenetan, baina baita, oro har, iker-tzaile, arduradun, teknikari eta aktibisten eskema mentaletan ere.

- Hainbat bide izan litezke hori egiteko:

- > Inkesta Soziolinguistikoei “zuku” gehiago ateratzea alde

**Herritarren motibo edo balio linguistikoak ezagutzea eta kontuan hartzea hizkuntza-politikak edo sustapen lanak egiterakoan (publikoak zein sozialak edota indibidualak): benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat, eta horretaz jardutea.**

subjektiboaren aldetik: txosten nagusietan, laburpenetan zein dibulgazioan.

> “Jarrerak” ere Mapa Soziolinguistikoetan sartzea.

> Herritarren diskurtso linguistikoei buruzko *EGOD* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016a eta 2016b) ikerketaren modukoak periodikoki egitea.

- Nafarroan eta Iparraldean ere egiten hasia diskurtsoei buruzko antzeko ikerketak.

- Herritarren motibo edo balio linguistikoak ezagutzea eta kontuan hartzea hizkuntza-politikak edo sustapen lanak egiterakoan (publikoak zein sozialak edota indibidualak): benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat, eta horretaz jardutea. Gogoan izan: “Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko, galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?”.
- Euskararen hizkuntza-politikari dagokionez, derrigortasun, arautze edo lege kontzeptuek herritarren artean duten interpretazioa eta lortzen duten adostasun edo ezadostasun maila sakonki aztertzea, oso eztabaidatuak daudelako. Gai hau lan-munduen eta lanpostu-eskaintzaren esparruetan argitu beharko litzateke bereziki, baina baita hezkuntza munduan ere.
- Hizkuntzekiko positiboa den teoria demokratikoan eta bere aplikazioan sakontzea. Herritarrei buruz ari gara. Teoria demokratikoa eta hizkuntza aniztasuna, bi-biak, lotu beharko lirateke hizkuntzekiko positiboa den kontzeptualizazio demokratiko aurreratu batean (ikus Erize, 2013b).
- Ikerketarako eta gogoetarako giro irekia sustatzea, ortodoxiatik edo “artaldetik” ateratzea zigortzen ez duena, ohiko moldeetatik atera ahal izateko eta askatasuna sentitzeko, eta euskararen mundura hurbiltzen denak giro ireki abegikor hori aurki dezaten.
- Gertuko diziplinetatik edatea (hau da, “sozio-” aldea gizarte zientzietatik hartzea, hutsetik asmatu gabe):
  - Antropologia, Soziologia, Psikologia, Pedagogia, Filosofia...
  - Populazioarekin sustatze lanak egiten eskarmentu handia duten beste alor batzuetako kontzeptuak eta metodologiak aztertzea eta euskal soziolinguistikara berregokitzea: adibidez, Osasun Publikoaren Sustapenaren alorrekoak, edota enpresa eta erakundeen mundukoak.
- Koherentzia etikoa, zorrotasun intelektuala eta errealtatearekiko egokitasuna dituzten ideiak lantzea, eta herritarrengan marko positiboak aktibatzen dituztenak.

Ikerlerro horien emaitzek aukera berri eta zabalagoak ekarriko lizkiokete bizikidetzan oinarritutako hizkuntza-politika integratzaile eta eraginkorrago bati. ●

## OHARRAK

1. Lan hau “Azken 30 urteotako bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) eta aurrera begirako erronkak” proiekturako berariaz sortua da. Baina badu aurrekari bat: Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako XI. jardunaldian (2014ko urtarrila) «Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko; galdetuko dizkizazue eta kontuan hartuko dituzue?» izenburuarekin egin nuen aurkezpena (Erize, 2014).

2. Hau da V. Inkesta Soziolinguistikoko datuen desglosea, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren atalean: Aldekoa %55; Ez alde, ez aurka %28; Aurkakoa %17 (Eusko Jaurlaritzak, 2013, 54. or.).

3. Hauek izan ziren DBH2ko ikasleen datuak, “Gustuko duzu...” galderaren aurrean (Eusko Jaurlaritzak, ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra, 2012, 11. or.):

- Euskara: Asko %33, Nahikoa %22, Normala %27, Gutxi %11 eta Bat ere ez %8.
- Gaztelania: Asko %40, Nahikoa %31, Normala %23, Gutxi %4, Bat ere ez %2.

4. “Literature reviews, including research syntheses and meta-analyses, are critical evaluations of material that has already been published. ... By organizing, integrating, and evaluating previously published material, authors of literature reviews consider the progress of research toward clarifying a problem” (American Psychological Association, 2011).

5. Lan honetan “Proiektzio” terminoa oinarritzko zentzuan erabiltzen da (Eustat 2016a): Proiektzio Demografikoak etorkizuneko biztanleriaren zenbatespenak dira, epe motz eta ertainera. Biztanleri kopuruak eszenario izeneko zenbait hipotesiren pean proiektatzen dira. Antzeko esanahia dute hurrengo hitzek ere. “Prediction” (2016): “[prediction work] brings together all available past and current data, as a basis to develop reasonable expectations about the future”. Edo “Prospección” (2016): “Exploración de posibilidades futuras basada en indicios presentes”. Edo “Perspective” (2016): “Angle, aspect sous lequel on se représente les événements susceptibles de se produire dans un avenir proche et, par méton., ces événements eux-mêmes”.

6. Quebec-i buruzko *Perspectives démographiques du Québec et de la région de Montréal (2006-2056)* lan sendoan, adibidez, horrela azaldu zuten erreferentziako eszenarioa: “Le scénario de référence reprend les hypothèses de comportement démographique plutôt moyennes, fondées tantôt sur le comportement observé en moyenne et en longue période (dans le cas de la migration interne), tantôt sur le comportement plus récent (dans le cas de la fécondité) ou anticipé (dans le cas de la migration internationale)” (Termote, Payeur eta Thibault, 2011, 87. or.).

7. Aurrekari bat *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* (Siadeco eta Martin de Ugalde, 1979) lan baliotsua dugu, baina beste egitura bat du, eta zaila gertatzen zait bere datuak 1991-2011 bitarteko seriekin konparatzea.

8. Friedrich Engels-ek norbanakoen borondateak eta gertaera kolektiboak uztartzen zituen bere azalpenetan, pasarte honetan bezala:

Nosotros hacemos nuestra historia, pero en primer lugar con premisas y condiciones muy determinadas. ... el resultado final proviene siempre de conflictos entre gran número de voluntades individuales, cada una de las cuales está hecha a su vez por un cúmulo de condiciones particulares de existencia. Hay pues innumerables fuerzas que se entrecruzan, una serie infinita de paralelogramos de fuerza que dan origen a una resultante: el hecho histórico. ... Pero del hecho de que las voluntades individuales ... no logren lo que quieren sino que se funden en una media colectiva, en una resultante general, no debe concluirse que su valor sea = 0. Por el contrario, cada una contribuye a la resultante, y en esa medida está incluida en ella. (Marx eta Engels, 1977, 592-593. or.)

9. Bost fase metodologiko nagusi izan zituen EGOD ikerketak: 1. Azterketa bibliografikoa: euskararen gaineko diskurtso egituratuaren bilketa. 2. Gizarte Foroa (adituak): analisi eta hausnarketa eragiteko, gizarteko ordezkari estrategikoekin. 3. Delphi teknika (adituak): analisi eta hausnarketa eragiteko, gizarteko ordezkari estrategikoekin. 4. Eztabaida taldeak (Focus Group): gizartearen lagin batekin (7 talde), metodologia kualitatiboa. 5. Inkesta: gizartearen lagin batekin (2.160 elkarrizketa), metodologia kuantitatiboa (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016, 36-41. or.).

10. "Elebidunak": euskara eta erdara (gaztelania, EAEn eta Nafarroan, edo frantsesa, Iparraldean) dakizkiten herritarrak. "Elebidunak" maiz "euskaldunak" bezala izendatuak izan dira (erdaraz ere badakitela suposatuzat emanez), eta bereizketa euskaldunak/erdaldunak egin izan da, oso intuitiboa, baina azkenaldian "elebidunak" kontzeptua nagusitzen ari da, euskaldunak elebidunak diren bitartean, erdaldunak elebakarrak direla nabarmentzeko asmoz. Baina ez dakit ez ote den zurrunezia gertatzen "elebidunak" termino hori...

11. "Eta zuri zer gustatuko litzaizuke, euskarak gizartearen duen presentzia handitzea, orain bezala mantentzea edo gutxitzea?" galderari %69k "handitzea" erantzun zioten (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016b, 410. or.).

12. Quebec-i buruzko *Perspectives démographiques du Québec et de la région de Montréal (2006-2056)* lan sendoan, adibidez, horrela azaldu zuten erreferentziako eszenarioa: "Le scénario de référence reprend les hypothèses de comportement démographique plutôt moyennes, fondées tantôt sur le comportement observé en moyenne et en longue période (dans le cas de la migration interne), tantôt sur le comportement plus récent (dans le cas de la fécondité) ou anticipé (dans le cas de la migration internationale)" (Termote, Payeur eta Thibault, 2011, 87. or.).

13. Planteamendu horiek, adierazpen herrikoietan ezezik, EAeko oinarritzko legedian ere agertzen dira: Autonomi Estatutuan (Eusko Herriko Autonomia, 1980, 6.1 art.) eta Euskararen erabilera normalizatzeko legean (Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legea, 2. art.); adidibez, "La lengua propia del País Vasco es el euskera" tankerako esapideekin.

## ERREFERENTZIAK

13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa. 1982, irailaren 3a. *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 106. Hemendik eskuratua: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published](http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published)

18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa. 1986, abenduaren 17a. *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 154. Hemendik eskuratua: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LF181986-04.htm](http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LF181986-04.htm)

